

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

Zigor-prozesua: exekuzioa eta kautela

Katixa Etxebarria Estankona
Ixusko Ordeñana Gezuraga
Josune Pérez Estrada
Alberto Saiz Garitaonandia

**EUSKARA ERREKTOREORDETZAREN
SARE ARGITALPENA**

**Liburu honek UPV/EHUko Euskara Errektoreordetzaren
dirulaguntza jaso du**

ZIGOR-PROZESUA: EXEKUZIOA ETA KAUTELA

LABURDURAK:

Art.....	Artikulua
BJLO.....	Botere Judizialaren Lege Organikoa
EK.....	Espainiako Konstituzioa
ELOO.....	Espetxeen Lege Organiko Orokorra
EZE.....	Espetxeratuen Zaintzako Epaitegia
HCPLO.....	<i>Habeas corpus</i> prozeduraren Lege Organikoa
LO.....	Lege Organikoa
MFEO.....	Ministerio Fiskalaren Estatutu Organikoa
ZK.....	Zigor Kodea
KZ.....	Kode Zibila
PKL.....	Prozedura Kriminalaren Legea
PZL.....	Prozedura Zibilaren Legea

AURKIBIDEA:

1. KAPITULUA: ZIGOR-EXEKUZIOAREN OINARRIAK ETA ELEMENTUAK

- 1.1. Zigor-exekuzioa: kontzeptua, izaera juridikoa eta lege-iturriak
- 1.2. Organo jurisdikzionala
 - 1.2.1. Organo eskuduna ikuspegi funtzionaletik
 - 1.2.2. Espetxeratuen Zaintzako Epaitegia
 - 1.2.3. Beste autoritate judizial batzuk
- 1.3. Exekuzio-titulua
- 1.4. Betearaztearen intzidenteak
 - 1.4.1. Kondena etetea
 - 1.4.2. Askatasun-gabetzea dakarren zigorra ordezkatzea
 - 1.4.3. Elkarri lotuta dauden delituengatik ezarritako zigorrak betetzeko exekuzio-tituluak berrikustea
 - 1.4.4. Betearaztearen etendura kondenatuaren buru-nahastearengatik
 - 1.4.5. Betearaztearen etendura babes-helegitea onartzeagatik
- 1.5. Betearaztearen bukaera

2. KAPITULUA: ZIGOR-EXEKUZIOA

- 2.1. Askatasun-gabetzea dakarren zigorra betearaztea
- 2.2. Diru-zigorra betearaztea
- 2.3. Gainerako zigor motak betearaztea
- 2.4. Osagarri-zigorrak betearaztea
- 2.5. Zigorrezkoak ez diren zehapenak betearaztea
- 2.6. Epaia eduki zibila betearaztea

3. KAPITULUA: KAUTELAZKO NEURRIAK ZIGOR-PROZESUAN. KONTU OROKORRAK.

- 3.1. Kautelazko neurriak zigor-prozesuan. Kontzeptua
- 3.2. Ezaugarriak
- 3.3. Oinarriak
- 3.4. Kautelazko neurri motak

4. KAPITULUA: KAUTELAZKO NEURRI PERTSONALAK (I).

- 4.1. Kautelazko neurri pertsonalak
- 4.2. Kautelazko zitazioa
- 4.3. Atxiloketa eta "*Habeas corpus*" prozesua
 - 4.3.1. Atxiloketa. Kontzeptua eta ezaugarriak

- 4.3.2. Atxiloketa motak
- 4.3.3. Oinarriak
- 4.3.4. Atxiloketaren iraupena
- 4.3.5. Atxilotuaren eskubideak
- 4.3.6. Atxilotua epailearen esku uztea
- 4.3.7. “*Habeas corpus*” prozesua

5. KAPITULUA: KAUTELAZKO NEURRI PERTSONALAK (II)

- 5.1. Behin-behineko espetxeratzea
 - 5.1.1. Kontzeptua, ezaugarriak eta izaera
 - 5.1.2. Oinarriak
 - 5.1.3. Behin-behineko espetxeratzea betetzeko moduak
 - 5.1.4. Iraupena. Gehienezko epe legalak
 - 5.1.5. Prozedura
 - 5.1.6. Kalte-ordainketak
 - 5.1.7. Behin-behineko espetxeratzean betetako denbora abonatzea
- 5.2. Behin-behineko askatasuna
 - 5.2.1. Kontzeptua eta ezaugarriak
 - 5.2.2. Oinarriak
 - 5.2.3. Betebeharrak
- 5.4. Prozedura
- 5.3. PKLren 544. ter artikulua aurreikusitako neurriak

6. KAPITULUA: KAUTELAZKO ONDARE-NEURRIAK

- 6.1. Kontzeptua
- 6.2. Oinarriak
- 6.3. Motak
 - 6.3.1. Ondasun eta gauzen okupazioa
 - 6.3.2. Fidantza
 - 6.3.3. Enbargoa
 - 6.3.4. Prebentziozko oharpena
 - 6.3.5. Behin-behineko pentsioa
 - 6.3.6. Ibilgailuak berehala bahitzea
- 6.4. Prozedura
- 6.5. Froga edo delituaren gorputza bermatzeko beste neurri batzuk

ZIGOR-EXEKUZIOA

1. KAPITULUA: ZIGOR-EXEKUZIOAREN OINARRIAK ETA ELEMENTUAK

1.1. Zigor-exekuzioa: kontzeptua, izaera juridikoa eta lege-iturriak. 1.2. Organo jurisdikzionala. 1.2.1. Organo eskuduna ikuspuntu funtzionaletik. 1.2.2. Espetxeratuen Zaintzako Epaitegia. 1.2.3. Beste autoritate judizial batzuk. 1.3. Exekuzio-titulua. 1.4. Betearaztearen intzidenteak. 1.4.1. Kondena etetea. 1.4.2. Askatasun-gabetzea dakarren zigorra ordezkatzeta. 1.4.3. Elkarri lotuta dauden delituengatik ezarritako zigorrak betetzeko exekuzio-tituluak berrikustea. 1.4.4. Betearaztearen etendura kondenatuaren buru-nahastearengatik. 1.4.5. Betearaztearen etendura babes-helegitea onartzeagatik. 1.5. Betearaztearen bukaera.

1.1. Zigor-exekuzioa: kontzeptua, izaera juridikoa eta lege-iturriak

Zigor-exekuzioa exekuzio zibila baino soilagoa da akusatuari zigorra betetzea besterik ez baitzaio ezartzen. Zigor-betearazpena kondena-epaia dagoenean besterik ez da gauzatzen, hau da, absoluzio-epaiak ez dira betearazten. Beraz, kondena-epaiak emandakoa betearazi beharko da.

Zigor-exekuzioaren izaera juridikoari dagokionez, esan beharra dago funtzio jurisdikzionalaren barruan exekuzioa dagoela. Horrela ezartzen dute EKren 117.3. artikulua eta BJLOren 2.1. artikulua, baita PKLren 984. eta 985. artikuluek ere, funtzio jurisdikzionalan epaitzea eta gauza epaitua betearaztearen akzioa barneratzen baitute. Uzia asetzearen ezaugarria bideragarria izatea da, hau da, errealitatera eramatea nahitaezko exekuzioaren bidez.

Zigor-exekuzioaren izaera juridikoaren arazoa agertzen da askatasun-gabetzea dakarren zigorrak ari garenean. Izan ere, zigor horiek establezimendu bereziak eta funtzionamendu- nahiz segurtasun-neurriak eskatzen dituzte. Jurisdikzio-organizazioa ezin da guztiaz arduratu eta ondorioz, Espetxeen Administrazioa da eskuduna zigorren exekuzioei dagokienez. Horretan datza izaera juridikoaren arazoa. Baina, arazoa bi mailetatik konpon daiteke: batetik, oro har, esan dugun bezala, legeak dio funtzio jurisdikzionala epaitzean eta gauza epaitua betearaztean datzala. Beraz, izaera jurisdikzionala du betearazteak. Horretarako, hain zuzen ere, sortu zen Espetxeratuen Zaintzako Epaitegia. Hainbat funtzio ditu: zigorraren iraupena kontrolatzea, askatasun baldintzatua erabakitzea, zigorraren etendura kontrolatzea, eta abar. Gainera, helegitea aurkez daiteke haren erabakien kontra. Beste maila batetik, arazoa ere zehazki konpon daiteke zigor-betearazpenaren izaera mistoa onartu behar delako, hau da, izaera jurisdikzionala eta administratiboa, Espetxeratuen Zaintzako Epaitegia baita betearaztearen erregimena, presondegi-onurak eta abar kontrolatzen dituena. Izan ere, horiek guztiak zigorraren iraupenean eraginak dituzten neurriak dira. Bestalde, zigorrak betearaztea legezkotasun-printzipioaren mende dago, legeak edo erregelamenduek ezartzen dituzten arauen arabera betearazi behar baita zigorra, eta epailearen kontrolaren mende betiere (PKLren 990. I. artikulua dioenez).

Zigor-betearazpenari buruzko arauak oso sakabanatuta daude eta honako lege eta lege-tresna hauetan aurkitzen ditugu, besteak beste: Konstituzioa, Prozedura Kriminaleko Legea, Zigor Kodea, Espetxeen Lege Organiko Orokorra.

Azkenik, aipamen bat egin behar diogu terminologiari. Espetxeratuak honela bereizten dira: prebentiboak, atxilotuak, behin-behineko espetxeratuak eta zigortuak.

1.2. Organo jurisdikzionala

Hiru organo judizialek esku hartzen dute zigor-betearaztean: ikuspuntu funtzionaletik betearazten duen organo eskuduna, Espetxeratuaren Zaintzako Epaitegia eta beste autoritate judicial batzuk.

1.2.1. Organo eskuduna ikuspuntu funtzionaletik

Bereizketa egingo dugu delituengatik prozesu, prozesu laburtu, epaiketa bizkor eta falta-epaiketaren artean. Delituengatik prozesuetan, bai prozedura arruntean bai prozedura laburtuan, epai irmoa ematen duen organo judicialari dagokio betearaztea (PKLren 985. eta 798. I. artikuluek diotenez). Kasazioaren ondorengo epaia (II. Aretoko Auzitegi Gorenak emandakoa) eman duen auzitegiak betearaziko du. Betearazteko organo eskudunak ezin baditu betearazterako diligentzia guztiak egin, hala egiteko eskatuko dio haiek beharko dituen tokiko bake-epaileari. Prozesu laburtuan eta epaiketa bizkorretan arau berbera erabiltzen da. Prozesu mota horietan exekuzioa zigor-epaitegiari edo epai irmoa eman duenari dagokio (PKLren 794. eta 803.3. artikuluetan jaso). Falta-epaiketetan, lehenengo auzialdian epaitu zuen organo judicialari dagokio epaia betearaztea. Apelazioa epaitu zuen epaitegiak autoak

itzuliko ditu exekuzioa betearazteko (PKLren 984. I. artikulua dioenez).

Organo judicial horiei dagozkien funtzioak urriak dira, askatasun-gabetzea dakarten zigorrei buruzkoak espetxeratuen zaintzako epaitegiarenak baitira. Funtzioak honako hauek dira, besteak beste: espetxeratze-agindua emanaz gero, presoen sartzea ezagutzea; departamentu berezietan edo erregimen itxiko establezimenduetan, prebentiboen sartzea ezagutzea; sartzearen agindua establezimendu berezietan eta premiazko jardunak (adib., atxilotuak nahiz presoak ospitale psikiatrikoan sartzea); inkomunikazio-erregimenean bisitak onartzea; espetxeratuaren eta bere abokatuaren nahiz prokuradorearen arteko komunikazioetan interbentzioa agintzea; leku jakin batzuetara joatea (edo bizitzea) galaraztea; espetxetik ateratzeko baimenak ematea, eta behin betiko askatasuna onartzea.

1.2.2. Espetxeratuen Zaintzako Epaitegia

1979ko Espetxeratuen Lege Organiko Orokorrak Espetxeratuen Zaintzako Epaitegia sortu zuen. Espetxeratuen Zaintzako Epaitegiaren eskumenik garrantzitsuena honako hau da: presoen eskubideak bermatzea eta presondegiko jarduera fiskalizatzea.

Eraketari dagokionez, zigor-jurisdikzioan, Espetxeratuen Zaintzako Epaitegi bat edo gehiago dago probintzia bakoitzean (BJLOren 94.1. artikuluan jaso). Dena den, Epaitegiaren eskumena beste probintzia batzuetara zabaltzeko aukera dago (BJLOren 94.2. artikuluan zehaztua).

BJLOren 5. Xedapen Gehigarriaren arabera, bere jardura jurisdikzionala da soilik; Espetxeratuen Zaintzako Epaitegiak (aurrerantzean EZE) funtzio jurisdikzionalak besterik ez ditu erabiltzen. Beraz, epaitegi horren jardunen aurka erreforma-

apelazio- eta kexa-errekurtsoak jartzeko aukera dago. Hala eta guztiz ere, aipatutako errekurtsoek aurreikusten dituzten arauak behin-behinekoak dira, PKL aldatzen den arte.

EZEren eskuduntzak Espetxeen Lege Organiko Orokorrak eta BJLOren 94.1. artikuluek arautzen dituzte: askatasun-gabetzea dakarten zigorrei eta segurtasun-neurriei buruzko funtzio juridikionalak, presondegiko autoritateen diziplinazko ahalmena kontrolatzea eta eskubideak bermatzea, besteak beste. Baina horiekin batera, baditu beste eskuduntza berezi batzuk, besteak beste, askatasun-gabetzea dakarren zigorra betearazteaz arduratzea; Konstituzioa eta giza eskubideak bermatzea (egin daitezkeen gehiegikeriak zuzendu behar ditu); espetxeak bisitatzea; zigortuen behin-behineko askatasunari buruz erabakitzea; establezimenduek proposatzen dituzten presondegi-onurak onartzea; espetxetik irteteko baimenak (bi egun baino gehiagokoak direnean), eta espetxeratuen lekualdaketak onartzea.

1.2.3. Beste autoritate judizial batzuk

Funtzionalki eskuduna den organo eta Espetxeratuen Zaintzako Epaitegiak gain, beste autoritate judizial batzuek ere esku hartzen dute zigor-exekuzioan. Honako hauek dira:

Beste auzi bateko epaile eskuduna: beste prozesu batean eskuduna den epaileak zigortua eska dezake hainbat eginbide burutzeko (deklaratzeko, esate baterako). Espetxearen zuzendariak EZEari jakinaraziko dio inguruabar hori (ELOren Erregelamenduaren 34. artikulua dioenez). Zeinahi epailek edo auzitegik ere pertsona bat espetxeratzea agindu dezake (ELOren 15.1. artikuluan jaso). ELOren 10.2. artikulua dio, espetxeratu prebentiboak bere mende daudenez gero, haien autoritate judizialari jakinarazi beharko zaizkiola espetxeratu prebentiboen lekualdaketak, batez ere, oso

arriskutsuak edo moldatu gabeak badira. Bestalde, ELOOren 48. artikulua ezartzen du espetxeratu horien irteerak onartzeko eskuduna dela.

Bukatzeko, epaiak betearaztea funtzio jurisdikzionala denez gero, horrela ezartzen du EKren 117.3. artikulua, Espainiako Estatuan Ministerio Fiskala ez dela exekuziorako autoritatea, hau da, Ministerio Fiskalak ez duela epaiak betearazteko eskumenik. Dena den, nolabaiteko esku-hartzea duela esan daiteke; izan ere, ELOOren Erregelamenduaren arabera (49.1., 219.4., eta 232.4. artikulua), Ministerio Fiskalak nahi duenean espetxeratuekin komunikatzeko eskubidea du, baita zigortuen egoera mentalari buruzko txostenak ezagutzeko eskubidea eta zigortuek eginiko delituzko egintzak ezagutzeko eskubidea ere, besteak beste.

1.3. Exekuzio-titulua

Zigor-betearazpena exekuzio-titulua dagoenean hasten da, beraz, exekuzio-titulua beharrezko baldintza da. Prozesu zibilarekin alderatuz gero, desberdintasun aipagarrienetako bat hau da: prozesu zibilean, exekuzio-titulua ez ezik, exekutatzaileak ere eskatzea beharrezkoa da epaia betearazteko. Ez dugu ahaztu behar prozesu zibilean aukera-printzipioa erabiltzen dela eta aipatu duguna printzipio horren ondorioa dela. Zigor-prozesuan, aitzitik, exekuzio-titulua nahikoa da organo judizial eskudunak kondena-epaia ofizioz betearazteko (PKLren 988. II. artikuluan jasoa).

Exekuzio-titulua epai irmoa duen dokumentua da, hau da, organo judizialaren borondatezko deklarazio aldaezina duen dokumentu publikoa, eta haren bidez, pertsona zigortu behar dela adierazten da.

Kondena-epai irmoa baino ez da exekuzio-titulua. Absolutio-epaiak ez dira betearazi behar, epai horiek ez baitute exekuziorik; absolutio-

epaiak kostuen zigorra badute, ez gara absoluzio-epaiaren betearazpenaz ari, kostuen zigorraren exekuzioaz baizik.

Zigor-prozesuan helegite guztiek eten-efektuak dituzte eta zigorrak ezin dira betearazi epaia irmoa izan arte; beraz, ez dago behin-behineko exekuziorik (PKLren 988. artikulua eta ZKren artikulua). Baina, PKLren 861. artikulua eta hurrengoek ezartzen dute helegitea aurkeztu ez duten zigortuek betearazpena has dezaketela.

Behin exekuzio-titulua lortu ondoren, organo judicial eskudunak epaiak betearazteko legeek eta erregelamenduek aurreikusitako egintza guztiak burutuko ditu ofizioz.

1.4. Betearaztearen intzidentek

Zigor-epaiak betearaztean bost intzidente mota sor daitezke: kondena etetea, askatasun- gabetzea dakarren zigorra ordezkatzeko, elkarri lotuta dauden delituengatik ezarritako zigorrak betetzeko exekuzio-tituluak berrikustea, betearaztearen etendura kondenatuaren buru-nahastearengatik eta betearaztearen etendura babes-helegitea onartzeagatik. Aipatutako intzidentek azalduko ditugu ondoren.

1.4.1. Kondena etetea

Zigor Kodearen 80.1. artikuluan arautzen da. Askatasun-gabetzea dakarren zigorraren betearazpena eten daiteke espetxea saihesteko eta horrela, delitugilearen errehabilitazioa lortzeko. Beharrezkoa da baldintza batzuk betetzea ordea. Hauek dira: zigorraren iraupen laburra, kondenatuaren arriskugarritasunik eza eta epaitzen duen organoaren erabaki arrazoitua (ZKren 80.1. artikulua).

Kondena eteteko delitugile primarioa izan behar du; kondena ezin da 2 urte baino gehiagokoa izan, eta gainera, erantzukizun zibila betea izan behar du. Oinarri horiek ZKren 81. artikuluan ezartzen dira.

Kondena etetearen iraupenari dagokionez, askatasun-gabetzea dakarren zigorra 2 urte baino gutxiagokoa izanez gero, eteteak 2 eta 5 urte bitartean iraungo du; zigor arinetan, berriz, 3 hilabete eta urtebete bitartean. Pertsonak epe horretan deliturik egin ezean, ez du kondena bete beharko eta ez dira zigor-aurrekaritzat jasoko. Epe horretan delituak eginez gero, etetea ezeztatuko da eta ondorioz, zigorra bete beharko du. (ZKren 84.1. eta 85.1. artikulua).

ZKren 80.4. eta 87. artikuluek etete bereziak ere arautzen dituzte, delitugileak hilurreneko eriak edo drogen mendekoak direnean, esate baterako.

Bestalde, zigorra zeinahi dela ere, etete partziala egin daiteke; hau da, zigorra segurtasun-neurria gehi kartzela denean, segurtasun-neurria bete ondoren, kartzela-zigorra betetzeak egindako aurrerapausoak arriskuan jar baditzake, ez da bete beharko (ZKren 99. artikuluan jaso).

1.4.2. Askatasun-gabetzea dakarren zigorra ordezkatzea

ZK-k askatasun-gabetzea dakarren zigorrak ordezkatzeko bidea ematen du, baldin eta urtebeteko edo gutxiagoko zigorrak badira. Askatasun-gabetzea dakarren zigorraren ordezkatzeko, komunitatearen aldeko lanak edo lokalizazio iraunkorra betetzen dira. 1995eko Zigor Kodearen aldaketak asteburuko atxilotzea kendu zuen eraginkorra ez zelako. Organo jurisdikzionalak ordezkatzea erabakitzen du epaian edo geroago, auto baten bidez, alderdiei entzun ondoren eta exekuzioa hasi baino lehen betiere. Helburua da kartzela saihestea oso delitu arinak direnean. Zigorraren ordezkapena erabakitzeko

aintzat hartuko dira egoera pertsonalak, gertakariaren izaera, jarduera eta kaltea konpontzeko borondatea (ZKren 88. eta hurrengo artikulua). Zigor ordezkaturia ez bada betetzen, zigortuak hasierako askatasun-gabetzea dakarren zigorra beteko du.

1.4.3. Elkarri lotuta dauden delituengatik ezarritako zigorrak betetzeko exekuzio-tituluak berrikustea

ZK-k, 76. artikuluan, elkarri lotuta dauden delituengan zigorra ezartzeko erregelak arautzen ditu; epaia eman baino lehen aintzat har daitezke prozesu bakarrean epaitzen badira delitu guztiak. Hala eta guztiz ere, elkarri lotuta dauden delituak epaitzeko hainbat prozesu jarraitu badira, exekuzio-tituluak berrikusi beharko dira (PKLren 988. II. artikulua). Beraz, azken epaia eman zuen organo judicialak ezarritako zigorrak betetzeko muga (40 urtekoa izanik) auto baten bitartez jarriko du ofizioz, edo Ministerio Fiskalak nahiz kondenatuak eskatuta (ZKren 76. I. artikulua arabera).

1.4.4. Betearaztearen etendura kondenatuaren buru-nahastearengatik

Zigorra betearazteak ez du zentzurik kondenatua buru-nahasketak jota dagoenean, ez baitira EKren 25.2. artikulua helburuak lortzen. Ondorioz, PKLren 991. artikulua eta hurrengoek intzidente bat aurreikusten dute bi fasetan bananduta. Intzidente horren bitartez, kondenatua benetan buru-nahasteak jota dagoen egiaztatzen da. Horrela izanez gero, betearazpena etengo da.

Informazio-espedita du izena intzidentearen lehenengo faseak. Fase administratiboa da: espetxearen zuzendariak gaixotasun mentala baloratzeko informazio-espedita bat egiteko agintzen du eta establezimendu berezian sartzen da kondenatua. Ondoren, bigarren fasean, izaera juridikzionala duen buru-nahastearen

intzidentea egiten da. Eginbide psikiatrikoa agintzen du organo judicial eskudunak; jarraian, akusazio partikularra eta defentsa izan zirenei eta Ministerio Fiskalari deitzen zaie iritzia eman dezaten. Haiek aurka egonez gero, ahozko zigor-epaiketa egin beharko da gaixotasunik dagoen egiaztatzeko.

Intzidentea egin ondoren, epaileak etetea aginduz gero, kondenatua egokia den tratamendu medikoaren mende jarriko da sendatu arte.

1.4.5. Betearaztearen etendura babes-helegitea onartzeagatik

Zenbaitetan, Auzitegi Konstituzionalak zigor-epai irmoaren exekuzioa eteten du babes-helegitea onartzen duenean. Baina etendura gertatzeko, kaltea sortu behar da ebazpenaren exekuzioan, eta babesak bere helburua galdu eta zigortuaren oinarritzko eskubideak urratu behar ditu. Auzitegi Konstituzionalak etendura erabakitzeke, kontuan hartu behar ditu egiteen larritasuna, garrantzi soziala, zigorraren iraupena eta zigorra betetzeko denbora geratzen ote zaion. Irizpen orokorrak, ordea, ez etetea izan behar du.

1.5. Betearaztearen bukaera

Zigorra osorik betetzea da betearazpena amaiarazten duen zio bakarra. Zigorra bete ondoren, epaitu zuen auzitegiak behin-betiko askatasuna onartuko du (ELOOren Erregelamenduren 24.1. artikulua).

Dena dela, badaude beste zio batzuk: kondenatuaren heriotza, zigorraren edo segurtasun-neurriaren preskripzioa, indultua, ofendituaren barkamena eta kondena-epai irmoa baliogabetzea.

Kondenatuaren heriotzari dagokionez, errudunaren heriotzak zigor-erantzukizuna iraungitzen du; beraz, betearazpena ere iraungitzen da (PKLren 115. artikuluan eta ZKren 130.1. artikuluan ezartzen da).

Bigarrenik dugu zigorraren edo segurtasun-neurriaren preskripzioa: preskripzioaren epea ZKren 133.1. eta 135. artikuluetan aurreikusten da. Epaia edo autoa irmoa izan zenetik hasten da zenbatzen. Genozidio-delitua ez da inoiz preskribatzen.

Hirugarren lekuan indultua dugu: Espainiako Konstituzioak indultu orokorra debekatzen du. Epaitu zuen organoak Gobernuari eskatu beharko dio indultua ofizioz, edo alderdiak bestela. Noiz eska daiteke? Alde batetik, legeak, zorrozki aplikatuta, egintza bat zigortzen duenean, baina epailearen ustez ez litzatekeenean horrela izan behar; eta bestetik, egindako kaltea eta erruztatuaren egoera pertsonalak aintzat hartuta, epaileak zigorra gehiegizkotzat jotzen duenean. Gobernuak indultua erabakitakoan, zigor-erantzukizuna eta zigorraren betearazpena iraungitzen dira (ZKren 130.3. artikulua).

Laugarren zioa ofendituaren barkamena da, baina delitu pribatuetan bakarrik. Ofendituaren barkamenak zigor-erantzukizuna iraungitzen du (ZKren 130.4. artikuluan aurreikusia dago). Horretarako, zenbait baldintza bete beharko dira: a) Berriazko barkamena; b) Exekuzioa hasi baino lehen barkatzea; c) Adin txikiko edo ezgaituen aurkako delitu eta faltetan, organo judizialak ordezeko legalak emandako barkamena uka dezake interesatua izateagatik edo zintzoa ez izateagatik (ZKren 130.4. artikulua).

Azkenik, kondena-epai irmoa baliogabetzearen zioak honako hauek dira: a) Hiltzat hartu zen pertsona bizirik agertzeagatik berrikuste-prozesuan emandako epaia. Epai horrek aurreko kondena-epaia baliogabetzen du (PKLren 958. II. artikulua dioenez); b) Prozesuan

aplikatu zen legea inkonstituzional deklaratzegatik. Kasu horretan, gertakaria despenalizatu edo zigor-erantzukizunetik salbuesten da;

c) Babes-eskeko helegitean emandako epai baieslea.

2. KAPITULUA: ZIGOR-EXEKUZIOA

2.1. Askatasun-gabetzea dakarren zigorra betearaztea. 2.2. Diru-zigorra betearaztea. 2.3. Gainerako zigor motak betearaztea. 2.4. Osagarri-zigorrak betearaztea. 2.5. Zigorrezkoak ez diren zehapenak betearaztea. 2.6. Epaiaren eduki zibila betearaztea.

2.1. Askatasun-gabetzea dakarren zigorra betearaztea

Espainiako Konstituzioaren 25. artikulua, bere bigarren paragrafoan, honela dio: kondenatuaren berreziketa eta birgizarteratzea helburu izanik betearazi beharko direla askatasun-gabetzea dakarten zigorrak (EKren 25.2. artikulua). Kondenatuak Konstituzioak aurreikusten dituen oinarrizko eskubide guztiak ditu, zigor-legeek edo epaiak ukatzen dizkietenak izan ezik (askatasuna, esate baterako). Bereziketa, lan ordaindua izateko, kultura eskura izateko eta bere nortasuna garatzeko eskubideak ditu.

Betearazpena hasi baino lehen, organo judizial eskudunak beharrezkoak diren neurriak hartu beharko ditu kondenatua espetxean sartzeko (PKLren 990. II. artikulua horrela ezartzen du). Presondegiko zuzendariari epai irmoaren kopia eta kondenaren likidazioa bidaliko dizkio. Kondenaren likidazioa idazkari judizialak egiten du; bertan, zigorraren iraupena zehatz-mehatz agertzen da, behin-behineko espetxeratzean bete den denbora kenduta, eta hasierako eguna eta azken eguna adierazten dira. Presoa espetxean sartu ondoren, betearazpena hasten da.

Betearaztean zehar, eta askatasun-gabetzea dakarten zigorrei dagokienez, sistema progresibo bati jarraitzen zaio; indibidualizazio zientifikoa du izena. Sistema lau mailatan banatzen da:

- Lehenengo gradua edo erregimen itxia arriskutsuak edo moldatu gabeak diren zigortu edo prebentiboentzat da.
- Bigarren gradua edo erregimen arrunta atxilotu eta behin-behineko presoentzat da, hau da, arriskutsuak edo moldatu gabeak ez direnak.
- Hirugarren gradua edo erregimen irekia deritzona: erdi-askatasuneko erregimenean zigorra betetzen jarrai dezaketen zigortuak. Erregimen horretan egoteko, zigortuak epaian zehaztutako erantzukizun zibila ordaindu behar du. Terrorismo-delitu kasuetan, zigortuak, aurrekoa betetzeaz gainera, damutu egin behar du.
- Laugarren gradua edo baldintzapeko askatasuna. Zigorraren azken zatia gradu honetan betetzen da. Azken gradua betetzeko zenbait baldintza bete behar dira: hirugarren graduan egotea, zigorraren hiru laurdenak beteta izatea eta jokaera ona. Baina, aurreko graduan gertatzen zen bezala, laugarren gradua izateko, aipatutako baldintzez gain, zigortuak erantzukizun zibila ordainduta izan behar du eta delitu terroristak egiteagatik zigortu badute, birgizarteratzeko erabakia hartua izan behar du. Batzuetan, salbuespenak egiten dira, besteak beste, gaixo sendaezinak eta 70 urteko pertsonak direnean. Espetxeratuen Zaintzako Epaitegia da eskuduna.

Lehenengo eta bigarren gradua espetxeratua aztertu ondoren ezartzen da; eta gradu batetik bestera pasatzea legearen arabera egiten da.

Atzerritarren kasuan, ez badira Espainian legalki bizi eta 6 urte baino gutxiagoko askatasun-gabetzea dakarren zigorra betetzera zigortu badituzte, zigorraren betearazpena Espainiako eremutik kanporatzearekin ordezkatu daiteke epaian (ZKren 89. artikuluan jaso).

ZKren 33.4. g) artikuluan beste askatasun-gabetze bat dakarren zigor bat arautzen da, baina, kasu honetan, izaera arina du; lokalizazio iraunkorraz ari gara. Bizilekuan edo organo jurisdikzionalak adierazten duen lekuan betetzen da eta ezin du 12 egun baino gehiago iraun. Asteburuetan bete daiteke (ZKren 37. artikulua).

2.2. Diru-zigorra betearaztea

ZK-k 50. artikulutik 53. artikulura arautzen du. Bertan, egunak-isuna sistema agertzen da. Esaten da sistema hori zuzenena dela zigortuaren diru-sarrerak kontuan hartzen direlako.

Isun-zigorraren gutxieneko iraupena 10 egunekoa da eta gehienezkoa, 2 urtekoa, zigorrak zehazteko arau orokorren arabera. Egunean 1,20 eurotik 400 eurora arte ezar daiteke; hilabetearen iraupena, berriz, 30 egunekoa da eta urtearena, 360 egunekoa.

Isuna zehazteko zigortuaren diru-sarrerak kontuan hartu behar dira eta epaileak arrazoitu egin behar du epaian. Epaian bertan, isunaren zenbatekoa ezarriko da, diru-sarreraren arabera ez ezik, egoera pertsonala kontuan hartuz. Epaian ere denbora eta

ordaintzeko era zehaztuko da. Zigortuaren egoera ekonomikoa aldatzen bada, hau da, okerrera badoa, isuna murriz daiteke.

Isuna ezartzeko, epaileak hartutako kaltea, delituaren objektuaren balioa edo delituaren onura hartuko ditu kontuan (legeak isun proportzionala deritzona).

Zigortuak ez badu isuna ordaintzen edo exekuzioak ezin badu aurrera egin, isunaren orde, lokalizazio iraunkorraren zigorra edo komunitatearen aldeko lanak ezarriko dira, kondenatuaren onespenerekin. Komunitatearen aldeko lanen kasuan, askatasun-gabetzea dakarren zigorraren eguna eta lanaldia balio berekoak dira. Lokalizazio iraunkorraren iraupena, ordea, ez dago araututa, baina sententzia eman duen epaileak zehaztuko du eta arrazoitu beharko du. Atxilotze ordezkaturia ezin da zehaztu, zigortuak 5 urteko askatasun-gabetzea dakarren zigorra bete behar badu. Zigortuak ekonomikoki hobera egiten badu, baina atxilotze ordezkaturia bete badu, ez dago isuna ordaintzera behartuta (ZKren 53. artikulua adierazten duen moduan).

2.3. Gainerako zigor motak betearaztea

Eskubide-gabetzea dakarten zigorren betearazpena ZKren 41-49. artikuluetan arautzen da. Zigorrak hauek dira:

- A) Erabateko gaitasun-gabetzea: gaitasun-gabetzearen bidez, zigortuari lanbidea, kargu publikoa eta ohoreak kentzen zaizkio, eta ezin ezingo ditu eskuratu kondena bete arte.
- B) Gaitasun-gabetze berezia lanbiderako, salerosketarako edo kargu publikoa izateko: zigortuari betiko kentzen zaio lanbidea edo kargua, hautatua izan arren, eta ezin izango ditu berreskuratu kondena bukatu arte. Inguruabar hori epaian adierazi behar da. (ZKren 42. artikulua).

- C) Gaitasun-gabetze berezia guraso-agintea izateko eta tutoretza edo seme-alaben zaintzarako: zigortuari guraso-agintearen eskubideak kentzen zaizkio, eta gainerako eskubideak bukatzen dira; eta kondena bukatu arte ez ditzake eskura (ZKren 46. artikuluan jasotzen da).
- D) Gaitasun-gabetze berezia zigortua kargu publikorako hautatzeko: zigorra betetzen duen bitartean iraungo du. Horrela adierazten du ZKren 44. artikulua.
- E) Lana edo kargu publikoa kentzea ZKren 43. artikuluan jasotzen da eta haren egikaritzea kentzen zaio zigortuari kondena bukatu arte. Adierazi behar dugu bai gaitasun-gabetzeak bai kentzeak ez dutela sufragio aktiboa debekatzen.
- F) Ibilgailu motordun eta ziklomotorren eskubidea kentzea: zigortuari bi eskubideak kentzen zaizkio epaian eta bertan zehaztuta dagoen denbora irauten du (ZKren 47.1. artikulua).
- G) Armak eduki edo eramateko eskubidea kentzea: denboraren iraupena sententzian zehazten da (ZKren 47.II. artikulua).
- H) Zenbait lekutan bizitzea edo bertaratzeko eskubidea kentzea: zigortuari galarazten zaio delitua burutu duen lekura, edo biktima edo haren senideak bizi diren lekura itzultzea (ZKren 48. artikulua).
- I) Komunitatearen aldeko lanak: askatasun-gabetzea dakarren zigorraren ordeztu aplikatu daitezke (ZKren 88. artikulua). Baina, komunitatearen aldeko lanak burutzeko, zigortuak baimena eman behar du, bestela lanak behartuak izango dira eta Espainiako Konstituzioak, 25.2. artikuluan, gaitzetsi egiten ditu. Zigortuak lanak egitea onartzen badu, dohainik egingo ditu. Gehienezko iraupena 8 ordukoa izango da eta egun batetik urtebetara iraungo du (ZKren 40.4. artikulua). Zenbait baldintza bete behar dira: espetxeratuen zaintzako epailearen mende egongo da, onura ekonomikorik gabe burutuko dira eta Gizarte Segurantzaren babesa izango dute.

- J) Zigor Kodeak biktimarengana edo senideengana hurbiltzeko debekua arautzen du, baita biktimarekin edo senideekin komunikatzeko debekua eta zenbait lekutan bizitzeko gabetze-zigorra ere.

2.4. Osagarri-zigorak betearaztea

Osagarri-zigorren betearazpena gauzatzen da eskubide-gabetzea dakarten zigorren betearazpenaren arabera, baina ZKren 54. artikulutik 57. artikulura doazen arauak kontuan hartuz:

- A) Horrela, legeak adierazten badu zigorrak gaitasun-gabetzea dakarrela, osagarri-zigorra izango da (ZKren artikuluan jasotzen da).
- B) 10 urteko edo gehiagoko askatasun-gabetzea dakarren zigorrak erabateko gaitasun-gabetze zigorra dakar eta kondena bukatu arte iraungo du, osagarri-zigorra nagusia bada izan ezik (ZKren 55. artikulua).
- C) 10 urteko askatasun-gabetzea dakarten zigorretan, epaia emango duen organo jurisdikzionalak, delituaren larritasunaren arabera, honako osagarri-zigor hauetakoren bat ezarriko du: lana eta soldata kentzea, gaitasun-gabetze berezia hauteskundeetan hautatua izateko, gaitasun-gabetze berezia lanbide, lanpostu publiko eta salerosketarako, haiek delituarekin erlazio zuzena eduki badute betiere, eta erlazio hori epaian bertan zehaztuko da (ZKren 56. artikulua).
- D) Epaiak ematen dituzten organo judizialek zenbait delitutan (adibidez, gizahilketa, kaltea, askatasunaren kontrako delitua, tortura-delitua, zintzotasun moralaren eta askatasunaren kontrako delitua, intimitate-eskubidearen, ohorearen eta bizilekuaren bortxaezintasuna kontrako delituak, eta abar), eta egintzaren larritasun edo delitugilearen arriskuaren arabera ezarriko dituzte ZKren 48. artikuluan araututako debekuak.

ZKren 617.2. artikulua adierazten duenez, debekuak tratatu txarren hutsegitean ere erabiltzen dira.

2.5. Zigorrezkoak ez diren zehapenak betearaztea

ZKren 129. artikulua arautzen du konfiskazioaren betearazpena. Baina arautzea oso urria da, ezarpen automatikoa edo arrazoitua bakarrik jasotzen baita. Horregatik, eta horrela zehazten du ZKren 127. artikulua, garapen-araudietara edo exekuzio inpropiora jo behar dugu. Kasu horietan, zigorrezkoak ez diren zehapenen betearazpena zaindu behar duten administrazio-agintaritzeari aginduak bidaliko zaizkie.

2.6. Epaiaren eduki zibila betearaztea

Epai irmoan metatutako uzi zibila berretsiz gero, (gauza itzultzea, kalte-galeren ordaina ematea), Prozedura Zibileko Legeak aurreikusten dituen arauak aplikatu beharko dira. Horrela adierazten dute PKLren 536. eta 615. artikuluek. Orduan, zigorrozesuan, gauza higarri zehatza edo generikoa emateko betebeharrak eta diruzko betebeharrak betetzean, aipatutako arauak aplikatuko dira, betiere ZKren 112. artikuluen berezitasunak kontuan harturik.

Diru-zigorra borondatez betetzeko aukera eman behar zaio zigortuari alde aurretik. Horrela egin ezean, exekuzioa hasiko da eta ez da beharrezkoa izango alderdiak betearazteko eskaera egitea. Baina, zenbait zehaztapen hartu behar ditugu kontuan: prozesu arruntean (prozesu laburtu eta epaiketa bizkorretan ere ulertu behar da, PKLren 758. artikuluen arabera) gauza daitezkeen jabari edo eskubide oneneko hirugarrengotzak Prozedura Zibileko Legearen 559. artikuluen eta hurrengo artikuluen arabera erabakiko dira. Horrela zehazten du PKLren 996. artikulua.

Prozesu laburtuan, berriz, batzuetan, munta zehatza ezarri beharrian, epaian kalkulatzeko oinarriak zehazten direnez gero, likidazio-intzidente bat aurreikusten da betearazte-fasean. Intzidente horretan, froga egin eta alderdiei entzun ondoren, epaileak munta zehatza erabakiko du, auto baten bidez (PKLren 794.1. artikulua). Auto horren kontra helegitea jar daiteke soilik zigor-epaiak eman badu. Prozesu laburtuari buruz esandakoa aplika daiteke epaiketa bizkorretan. (PKLren 803.3. artikulua).

Falta-epaiketetan, PZLk ezarritako izapideak hitzezko epaiketetarako jarraituko dira (PKLren 984. III. artikulua). Epaiak likidatzeko intzidentea ere posible da epaiketa horretan (PKLren 974. II. artikulua).

Gainera, ZK-k bi arau berezi ezartzen ditu erantzukizun zibila betearazteko; ordainketa eta zigorraren etendurari buruzkoak dira (ZKren 126.1. I. eta 80.3. artikulua). Adierazten du zigortuak borondatez egiten badu ordainketa edo epaiaren eduki zibila betearazten bada, lehenik eta behin kaltetuari egindako kalteak ordaintzeko erabiliko dela. Bestalde, ZKren 125. artikulua ezartzen du ordainketa zatikatzea onartzen dela. Organo jurisdikzionalak ordainketaren epea eta zenbatekoa zehaztuko du, kaltetuari entzun ondoren, beharrianak kontuan hartzeko. Zenbatekoak zehazteko orduan, erantzulearen ahalbide ekonomikoei ere begiratuko die.

Zigor-prozesu guztietan, erantzukizun zibilari buruzko erabakiak behin-behinekoz betearaz daitezke (PKLren 989. artikulua). Horretarako, PZLren 524. eta hurrengo artikulua aplikatuko dira.

Epaiaren gainerako eduki zibilak (kostuak eta diziplinazko isunak) borondatez bete ezean, PZLk zehaztutako premiamendu-bideari

jarraituko zaio (PKLren 245. eta PZLren 634. eta hurrengo artikuluak).

KAUTELAZKO ZIGOR-NEURRIAK

3. KAPITULUA: KAUTELAZKO NEURRIAK ZIGOR-PROZESUAN. OINARRIAK

3.1. Kautelazko neurriak zigor-prozesuan. Kontzeptua.
3.2. Ezaugarriak. 3.3. Oinarriak. 3.4. Kautelazko neurri motak.

3.1. Kautelazko neurriak zigor-prozesuan. Kontzeptua

Prozesu guztietan, denbora dela kausa, emango den epaia alferrik izan liteke, batez ere prozesuko subjektu pasiboak berau ez betetzeko erabiltzen duenean. Hori dela eta, ezinbestekoak ditugu kautelazko prozesua edo kautelazko neurriak. Hona hemen funtzio jurisdikzionalaren hirugarren adierazpena: kautelazkoa.

Jakin dakigunez, funtzio jurisdikzionala epaitzea eta gauza epaitua betearaztean datza; baina bi funtzio horiek bermatzeko beharrezkoa da kautelazko prozesua. Beraz, horrela zehatzenez kautelazko neurrien kontzeptua: kautelazko neurriek bermatzen dute emango den kondena-epaiak ezartzen duena betearaziko dela eta ziurtatzen dute ahozko epaiketan akusatua bertaratuko dela.

Gatazka juridiko guztiek ebazpena izan dezaten, jarduera-segida batetik, hau da, prozedura batetik pasatu behar dute. Baina jarduera guztiak bukatu arte denbora pasatzen da. Zehazki, zigor-prozesuan, epaia ahozko epaiketaren amaieran ematen da, baina horren aurretik instrukzioa egin behar da. Instrukzioko fasean, froga-iturriak eta ahozko epaiketa burutzeko beharrezko material osoa biltzen da. Horrela, alderdi guztiek epaiketarako posizioa prestatuko dute; batetik, Ministerio Fiskalak eta gainerako akusazioek froga-elementuak lortuko dituzte akusazio mantentzeko, eta bestetik,

akusatuak deskarguko frogak prestatuko ditu. Baina instrukzioa prestatzeko behar den denbora arriskugarria izan daiteke prozesuarentzat eta emango den epaiaren eraginkortasunarentzat; batzuetan, akusatua agertzen ez denez, ez dago prozesuarekin jarraitzerik, edo bestetan, kaudimen-gabezia egoera dela-eta, ez dago epaia betetzerik,... Arrisku hori saihesteko kautelazko neurriak hartzen dira. Honako helburu hauek dituzte: prozesuarekin jarraitzea eta emango den (kondena-)epaiaren betearazpena posible egitea. Kautelazko neurrien bitartez, subjektu pasiboaren borondateak zigor-prozesua eraginik gabeko bihur dezan saihesteko ahalegina egiten da.

Prozesuko subjektu aktiboak (alderdi-akusatzaileak) kautelazko neurriak eskatzen ditu subjektu pasiboaren (zigor-erantzulea edo erantzule zibila) kontra, eta epaileak hartzen du erabakia. Kasu horretan, subjektu aktiboak helburu prozesala duen uzi prozesala egikaritzen du, eta prozedura izapidetzen den bitartean emango den kondena-epaiaren eraginkortasuna segurtatzean datza.

Esan berri dugunez, kautelazko neurriek kondena-epaiaren betearazpena bermatzea dute helburu. Baina kasu batzuetan "kautelazkoak" deituta ere, hainbat neurri kautelazkoak ez diren beste helburu batzuetara zuzentzen dira. Helburu horien artean egon daitezke, besteak beste, gizartearen segurtasunik ezaren sentipena asetzea, erruztatuak burutuko dituen beste delitu batzuk saihestea, edo biktimari segurtasuna eta babesaren ematea.

Legeak babes-neurriak aurreikusten ditu, zigor-prozesuak irauten duen bitartean eta erantzukizunak ezartzeko epaia eman bitartean biktimei babesaren emateko. Argi geratu behar du kautelazko neurriek eta babes-neurriek helburu desberdinak dituztela, biak zigor-prozesu baten barruan hartzen diren arren. Biak inputatuaren kontra hartzen dira, eta haien edukia ere berdina izan daiteke; are gehiago, biak

legearen manu berean aurreikusita egon daitezke (ikus PKLren 503. artikulua, behin-behineko espetxeratzea kautelazko neurri moduan edo biktimaren babes-neurri moduan). Biek eskubideak murriztea edo galaraztea dakartenez gero, kasu bietan beharrezkoa da epailearen erabaki motibatua. Hala eta guztiz ere, biek helburu desberdinak dituzte, eta legeak eskatzen dituen oinarriak ere desberdinak izango dira.

Biktimen babes-neurriez gain, legeak kautelazko helburua ez duten beste neurri batzuk aurreikusten ditu: gizartea asetzeko neurriak edo gizartearen babes-neurriak; gizartearen babesa delituak eragindako gizarte-alarman edo jokaera zehatz batzuk ez errepikatzeko dagoen interes publikoan oinarritzen da (ez daude arrazoi prozesalean oinarrituak). Kasu horretan, legeak exekuzioaren edukia aurreratzeko aukera ematen du, hau da, legeak alde aurretiko babesa ematen du epai irmoa eman baino lehen. Izan ere, posible da motor-ibilgailuen baimena kentzea, enplegu edo kargualdi publikoaren etendura edo establezimenduak ixtea. Kasu horietan, kondena-epaiaren edukia aurreritzen da, indizioak bakarrik aztertu ondoren. Neurriak eta zigorrak berberak dira, baina muga bat dago: ezin dute oinarritzko eskubideen eremua ukitu.

Baina kautelazko neurriak zigor-prozesuan hartzen diren beste neurri batzuetatik bereizteko, kontzeptu bat argitu beharra dago, hau da, "neurri hertsatzaileak" izenekoak. Neurri hertsatzaileak eskubideak uki ditzaketen bitarteko juridikoak dira, baina ukitze horiek batzuetan epaiaren eraginkortasunean oinarritzen dira, hau da, kautelazko helburu edo funtzioa dute (kautelazko neurriak dira atxiloketa, behin-behineko espetxeratzea eta behin-behineko askatasuna, hurrengo kapituluetan aztertuko ditugunak); beste batzuetan, aldiz, kautelazkoak ez diren beste helburu batzuetara zuzentzen dira: prebentziozko helburuetara (gida-baimena behin-behinekoz gabetzea, eta enplegu edo kargualdi publikoaren behin-

behineko etendura kasu) edo ikerketa-funtzioetara (ikerketa-eginbidea, besteak beste, ADN probak, leku itxian sartzea eta miaketa, liburu eta agirien miaketa, eta komunikazio pertsonalen kontrola). Bi kasuetan, neurri-hertsatzaileak dira baina funtzio desberdinak dituzte.

Horretaz gainera, kasu batzuetan, posible da askatasuna mugatzen edo kentzen duten neurriak hartzea, baina prozesu nagusiarekin zerikusirik ez izatea. Hau da, kasu horietan, neurriak ez dira instrumentalak, prozesu nagusiarekin lotuta ez daudelako. Neurri horiek hainbat motatakoak dira; batzuk aipatzekotan: atzerritarrak zentro batean sartzea, kanporatze-espeditente zigortzaile bat izapidetzen den bitartean (urtarrilaren 11ko 4/2000 LOren 62. artikulua) eta ezgaituak zentro berezian sartzea (KZren 211. artikulua). Kautelazko neurriak ez badira ere, askatasuna mugatzen edo kentzen dutenez gero, *habeas corpus* prozesua has liteke, legeko baldintzak betetzen ez badira.

Bestalde, zigor-prozesuan hartzen diren kautelazko neurriak, batzuetan, autoritate administratiboek zigortzeko xedez espeditente batean agintzen dituztenen oso antzekoak izan daitezke. Horrela gertatzen da adibidez, kautelazko neurria Administrazioak emandako lizentzia edo baimena kentzea denean. Gai horretan agertzen den arazoa *bis in idem* litzateke, hau da, zigor-eremuan eta eremu administratiboan zigortzeko arriskua.

3.2. Ezaugarriak

Ondoren, kautelazko neurriak bereizten dituzten ezaugarriak aipatuko ditugu:

- 1) Jurisdikzionaltasuna: kautelazko neurriak autoritate judizialak hartutakoak baino ez dira. Dena dela, horrek ez du esan nahi

salbuespenik ez dagoenik, izan ere, gero ikusiko dugunez, atxiloketa egiteko ez da beharrezkoa epailearen agindua (ikus EKren 17. art.).

- 2) Instrumentaltasuna: kautelazko neurriak prozesuarekin lotuta doaz; hau da, ez dago kautelazko neurririk prozesu nagusi bat ez badago. Kautelazko neurriak prozesu nagusiaren arrakasta lortzeko baliabidea da. Kautelazko neurriek prozesu nagusi hori bermatzen dute, hain zuzen. Baina horrek ez du esan nahi prozesua jadanik hasita dagoenik, baizik eta posible dela hasi aurretik neurria hartzea, prebentziozko atxiloketarekin gertatzen denez.

Alde batetik, instrumentaltasuna prozesu nagusiaren garapenarekiko lotura dakar. Horrek esan nahi du behin prozesu nagusia amaituta, kautelazko neurria iraungitzen dela, eta altxatu egiten dela edo exekuzio-jardueragatik ordezkatzeko dela.

Bestetik, instrumentaltasunak prozesu nagusiaren objektuarekiko lotura ere badakar. Hau da, egokia izan beharko du lortu nahi diren helburuei dagokienez; horregatik, batzuetan, kautelazko neurriaren edukia eta exekuzio-neurriarena berdina izan daitezke (adib., behin-behineko espetxeratzea edo enplegu edo kargualdi publikoaren etendura).

- 3) Behin-behinekotasuna: behin hartuta, kautelazko neurriak ez dira inoiz behin betiko bihurtzen. Beraz, prozesu nagusian beharrezkoak ez direnean, desagertu egiten dira. Behin eta berriz azaldu denez, kautelazko neurria epaiaren eraginkortasuna lortzera zuzenduta dago; horrela, prozesua behin betikoz erabakitzen duen epaia eman ondoren, ez du zentzurik kautelazko neurria mantentzeak.

- 4) Iragankortasuna: aurreko ezaugarriarekin lotuta. Kautelazko neurriek iraupen mugatua dute, horregatik, haien oinarriak desagertzen direnean iraungitzen dira. Horri dagokionez ñabardura bat egin beharko genuke; izan ere, kautelazko neurriek oinarrizko eskubideetan eragina badute, gehienezko epeak egon daitezke. Hau da, kasu horietan, nahiz eta kautelazko neurria oinarritu zuten arrazoiak mantendu, legeak denborazko mugak ezartzen ditu oinarrizko eskubideak babesteko. Baina kontuan hartu behar da legeak ezarritako epeak gehienezkoak direla, hau da, nahiz eta epe barruan egon, askatasuna kentzeko baloratu ziren inguruabarrak aldatzen badira, inputatuaren egoerak ere aldatu beharko du.
- 5) Aldagarritasuna: aurreko bi ezaugarriekin lotuta. *Rebus sic stantibus* printzipioa aplikatzen da. Baldintzak betez gero, kautelazko neurriak har daitezke, eta mantentzen badira, eutsi egingo zaie. Eta era berean, kautelazko neurria oinarritu zuten arrazoiak aldatzen edo desagertzen badira, horiek ere aldatzeko edo altxatzeko aukera dago.
- 6) Proporzionaltasuna: kautelazko neurriek lortu nahi diren helburuekiko egokiak ez ezik, ikertzen diren egintzekiko eta haien larritasunarekiko proportzionala izan behar dute; horregatik, inputatuaren eskubideen murrizketa ezin da epaiaren kondena baino larriagoa izan. Kasuaren inguruabarrak aztertu ondoren, neurrien artean inputatuaren eskubideen eremuan kalte gutxien eragiten duena ezarriko da. Sarritan zigor-prozesuko kautelazko neurriek oinarrizko eskubideak ukitzen dituzte (batez ere askatasuna eta erruduntasun-presuntzioari dagokienez); ondorioz, oinarrizko eskubideen murrizketa horren bitartez lortu nahi den helburuarekiko proportzionala izan beharko du kautelazko neurriak.

- 7) Estatuaren erantzukizuna: kautelazko neurri bat hartzean, akats judizial edo Justizia Administrazioaren ez-ohiko funtzionamenduagatik inputatuari kalte egiten bazaio, Estatuak kalte-ordaina eman beharko dio.

Atalarekin amaitzeko, azaroaren 25eko 15/2003 LOk (azaroaren 23ko 10/1995 LO, Zigor Kodeari buruzkoa, aldatzen duena) sartu zuen kautelazko neurriei buruzko aldaketa aipatu beharra dago. Zigor-prozesuetan zehar hartzen diren zeinahi kautelazko neurriren oharra hartu behar da. Zentzu horretan, oso garrantzitsua da behin-behineko espetxeratzearen oharpena, gehienezko iraupena kontrolatzeko. Oharpen guztiak Erregistro Zentral (Justizia Ministerioan kokatua) batean jasoko dira.

3.3. Oinarriak

Hasieran azaldu dugunez, kautelazko neurrien helburua emango den epaiaren betearazpena bermatzea da. Baina ezin da ahaztu kautelazko neurriak instrumentalak direla, prozesu nagusiari lotuta doazela eta proportzionalak izan behar dutela. Beraz, kautelazko neurriak ezin dira edozein kasutan hartu, eta erabakiak arrazoitua izan beharko du; hau da, kautelazko neurriak hartu ahal izateko, beharrezkoak izango dira: benetako eskubidearen itxura (*fumus boni iuris*), neurriok hartu ezean, prozesuaren eraginkortasunarentzako arriskua (*periculum in mora*) eta epailearen ebazpen arrazoitua.

A) Fumus boni iuris

Beste hitz batzuetan, benetako eskubidearen itxura. Argitu beharra dago itxura baino ez dela eskatzen, azken finean, ahozko epaiketan, froga-jardueraren bitartez egiaztatuko da. Pertsona jakin baten kontra seinale sendoak egon behar dute, hots, inputatu den pertsonak egitate kriminala egin duela adierazten duten seinale

sendoak. Pertsona egilea den dioten seinaleak, edo, dagokionean, erantzukizun zibilaren seinaleak. Seinale horiek, itxuraz, kondena-epaia justifikatu behar dute. Hitz gutxitan, zigor-prozesuan *fumus boni iuris* adierazpenak esan nahi du inputazio motibatua eta egiantzekoa dela. Delituzko egitate konkretuak leporatzen zaizkion pertsona inputatu jakin bat egon beharko du; beraz, bi elementu batzen dira hemen: objektiboa (delituzko egitate konkretuak), eta subjektiboa (egitate horien zigor-erantzulea edo kasua denean, erantzule zibila).

B) *Periculum in mora*

Prozesuaren iraupena dela-eta, ebazpen judizialaren edukia ez betetzeko arriskuan zehazten da, hau da, jarduera jurisdikzionalaren iraupena dela-eta, kalte juridikoa izateko arriskuan. Izan ere, inputatuak prozesuaren iraupena aprobeitza dezake epaiaren eraginkortasuna zapuzteko. Arrisku horrek zerikusia izan dezake inputatuaren pertsonarekin edo haren ondarearekin.

Kautelazko neurri pertsonalei dagokienez, oinarria inputatuak ihes egiteko arriskua da (zigorraren larritasuna eta prozeduraren iraupena aztertuta); inputatua prozesuaren eskura ez badago, ez legoke epaitzerik eta are gutxiago kondena betearazterik.

Kautelazko ondare-neurriari dagokienez, aldiz, oinarria desberdina izango da: inputatuaren kaudimen-gabezia edo gauza ezkutatzeko arriskua. Ondasunak desagertu edo ezkutatu badira, ez da posible erantzukizun zibila asetzea; eta era berean, horrek prozesuaren jarraipena galaraz dezake.

Bi oinarri horiek proportzionaltasunaren printzipioa kontuan izanik baloratuko dira betiere, neurriak izaera zigortzailea izan ez dezan.

Zentzu horretan, kasu bakoitzaren inguruabarrak eta helburua aztertuko dira.

D) Ebazpen judiziala

Zigor-prozesuan kautelazko neurriak hartzeko beharrezkoa izango da ebazpen judizial motibatua. Beraz, kautelazko neurriak hasita dagoen prozesu batean hartuko dira, hau da, instrukzioan zehar. Horrek esan nahi du Instrukzioko Epaileak erabakiko duela kautelazko neurria hartzea.

Dena dela, aurreko bi oinarriak beteta (*fumus boni iuris* eta *periculum in mora*), baina prozesua hasi baino lehen, kasu batzuetan, posible da behin-behinekoz kautelazko neurria hartzea. Horrela gertatzen da EK-k 17.2. artikuluan aurreikusten duen prebentziozko atxiloketan. Aipatutako artikulua dioenaren arabera, poliziak edo zeinahi pertsonak atxilo dezake, baina oso iraupen laburreko neurria dela ahaztu barik.

3.4. Kautelazko neurri motak

Zigor-jardueran zehar har daitezkeen kautelazko neurriak oso desberdinak izan daitezke, baina normalean kautelazko neurri pertsonalen eta kautelazko neurri errealen artean bereizten da.

- Kautelazko neurri pertsonalak: zigor-legeari dagokionez, epaiaren betearazpena bermatzen du (adib. urtebeteko presoaldi-zigorra) eta inputatuaren pertsonaren gainean hartzen dira. Horiek dira, hain zuzen ere, zigor-prozesuan eragin handiena dutenak, subjektuaren askatasun-eskubidea eta errugabetasun-presuntzioa (EKren 17.1. eta 24.2. art.) ukitzen dituztela aintzat hartuta. Neurri horiek gizabanakoaren eskubideak mugatu (behin-behineko askatasuna kasu) edo

galarazten (behin-behineko espetxeratzea kasu) dituzte. Hori dela eta, behar-beharrezkoak direnean baino ez dira hartuko.

- Kautelazko ondare-neurriak edo neurri errealak: kasu horretan neurriek epaiaren diruzko erantzukizunari buruzko deklarazioa bermatzen dute, eta ondasun edo ondarearen gainean hartzen dira. Horien bidez inputatu edo hirugarren pertsonen ondare-erabilpena mugatzen da, zigor-erantzukizuna, erantzukizun zibila, edo kostuen ordainketa bermatzeko. Horregatik esan liteke neurri horiek bi motatakoak izan daitezkeela: zigor-neurriak zigor-erantzukizuna bermatzeko (ez dugu ahaztu behar zigorra isun bat izan daitekeela) edo neurri zibilak delitutik ondorioztaturiko erantzukizun zibila bermatzeko, hau da, kondena zibila bermatzeko (gauza itzultzea eta kaltea konpontzea edo ordaintzea).

4. KAPITULUA: KAUTELAZKO NEURRI PERTSONALAK (I)

4.1. Kautelazko neurri pertsonalak. 4.2. Kautelazko zitazioa. 4.3. Atxiloketa eta *habeas corpus* prozesua. 4.3.1. Atxiloketa. Kontzeptua eta ezaugarriak. 4.3.2. Atxiloketa motak. 4.3.3. Oinarriak. 4.3.4. Atxiloketaren iraupena. 4.3.5. Atxilotuaren eskubideak. 4.3.6. Atxilotua epailearen esku uztea. 4.3.7. *Habeas corpus* prozesua.

4.1. Kautelazko neurri pertsonalak

EKren 17.1. artikulua pertsonaren askatasunerako oinarrizko eskubidea aldarrikatzen du: *“Pertsona guztiek askatasunerako eta segurtasunerako eskubidea du. Inori ezin zaio askatasuna kendu, artikulua honetan xedatzen denaren arabera, legeak aurreikusitako kasuetan eta moduan ez bada”*.

Egia esan, kautelazko neurri pertsonalen gaian asko dira kolokan dauden eskubideak: alde batetik, herritarren askatasuna eta errugabetasun-presuntzioa (EKren 17.1. eta 24.2. art.) eta bestetik, ordena eta bizikidetzak baketsua mantentzeko gizartearen eskubidea; izan ere, estatuak delitua jazartzeko eta herritarren askatasun-eremua segurtatzeko betebeharra du. Beraz, bi dira aurrez aurre ipintzen diren eremuak: inputatuaren eskubide indibidualak eta gizartearen eskubideak. Horregatik baiezta genezake estatuak eginiko kautelazko neurri pertsonalen erregulazioa eta horrek dakarren murrizketa askatasun-eskubidean gobernuaren ideologia neurtzeko bide egokia izan litekeela. Askatasunaren murrizketa edo gabetzea erregela orokorra izanez gero, eta eskubide indibidualak interes orokorren mende daudenean, estatu autoritario baten aurrean gaude. Kontrakoa gertatuz gero, estatu demokratikoaren balioak nagusi izango lirarteke.

Baina argi dago muturreko egoerak baztertuz, zigor-prozesuan, batzuetan, pertsonaren askatasuna murriztu beharra dagoela, kondenatzen duen epai irmorik ez egon arren; EKren 17.1. artikulua xedatzen duenez, ordea, legeak aurreikusitako kasuetan eta eran, eta oinarriak errespetatuta.

Kautelazko neurri pertsonalak ebazpenak dira, normalean judizialak, eta horien bitartez, zigor-prozesuaren barruan, pertsona baten askatasuna murrizten edo gabetzen da zigor-epaiketa bera eta emango den kondena-epaiaren betearazpena posible egiteko.

Azter ditzagun orain zein diren legeak aurreikusten dituen kautelazko neurri pertsonal horiek: kautelazko zitazioa, atxiloketa, behin-behineko espetxeratzea eta behin-behineko askatasuna.

4.2. Kautelazko zitazioa

Inputatuaren deklarazioa aztertzean aipatu genuen. Egile batzuek kautelazko neurritzat hartzen dute; beste batzuek, ordea, deklarazio hutsa dela diote.

PKLren 486-488. artikuluetan aurreikusten da, eta neurri pertsonalik arinena dela esan dezakegu, atxiloketa baino arinagoa.

Egintza zigorgarria inputatzen zaion pertsona zitatuko da entzuna izateko (PKLren 486. art.). Printzipioz ulertu beharko genuke momentu horretan epailearen ustez ez dagoela erantzukizunaren oinarri sendorik, inputazioa nolabait ahula dela eta horregatik inputatuaren atxiloketa ez dela beharrezkoa izan. Inputatuari azalpenak emateko aukera ematen zaio; horrela, epaileak inputazioa indartu edo ikerketatik kanpo uzten du.

Dena dela, gaur egun entzuna izateko zitazioak bere zentzua galdu du eta zitatua izan denari deitzen zaio ez azalpenak emateko eta errugabetzeko, inputatu gisa deklarazioa egiteko baizik.

Epaileak jarrera pasiboa izango du; inputatuari entzun besterik ez dio egingo. Zitatua agertzen ez bada eta ez agertzeko bidezko ziorik alegatu ezean, agertzeko agindua atxilotzeko agindu bihur daiteke (PKLren 487. art.).

4.3. Atxiloketa eta *habeas corpus* prozesua

4.3.1. Atxiloketa. Kontzeptua eta ezaugarriak

Atxiloketa pertsona epailearen esku uzteko helburua duen pertsonaren askatasun-gabetze laburra da. Behin epailearen esku jarri ondoren, hark atxilotuaren egoera pertsonalari buruz erabakiko du legearen arabera, askatasun-gabetzea mantenduz behin-behineko espetxeratze bitartez, beste kautelazko neurri bat ezarriz (adib., behin-behineko askatasuna betebeharren bat jarrita), edo pertsona aske utziz, inolako kautelazko neurririk gabe (kautelazko neurriak hartzeko oinarririk ezagatik).

Esan dugunez atxiloketa askatasun-gabetze laburra da, baina beste neurri batzuetatik desberdintzeko, kontuan hartu behar da atxiloketak delitua egitearekin lotura duela eta horregatik, hasita dagoen edo hasiko den prozesu batekin zerikusia duela. Egile batzuen ustez, pertsona bat identifikatzeko askatasun-gabetze laburra ez da atxiloketa, baldin eta inputazio batean oinarritzen ez bada. Horri “poliziaren atxikitzea” deitzen zaio eta atxiloketarako legeak ezarritako bermerik gabe egiten da. Hori dela eta, legeak aurreikusten ez zuelako, hasiera batean, “atxikitzearen” legezkotasuna zalantzan jarri zen, baina Konstituzio Auzitegiak legezkoa zela deklaratu zuen, otsailaren 21eko 1/1992 herritarren

segurtasunaren babesari buruzko LOren 20.2. artikuluan oinarrituta. Izan ere, lege horrek 20. artikuluan pertsonak identifikatzeko jarduketak burutzeko ahalbidetzen du polizia, eta gerta litekeen delituzko erantzukizuna aurreikusten du pertsonak identifikazioari aurre edo uko egiten dionean, edo borondatez jarduten ez duenean. Horri buruz Konstituzio Auzitegiak deklaratu zuen “atxikitzea” (pertsona baten identifikazioa komisarian) askatasuna kentzeko era bat dela, eta kautelazko atxiloketaren bermeak betetzen ez diren arren, ez duela EKren 17.1. artikulua urratzen, helburuarekin berme egokiak aurreikusten direlako (beharrezko denbora baino gehiagoz ez luzatzea; *habeas corpus* prozesuaren aukera, helburua errespetatzen ez denean edo atxikitzea gehiegi luzatzeagatik; eta identifikatzeko errekerimenduaren zioak pertsonari jakinaraztea).

Atxiloketaren ezaugarriei dagokienez, aurreko kapituluan azaldutakoak dira, baina ñabardura batzuk egin behar dira:

- Hasteko, atxiloketa kautelazko neurri pertsonala da; pertsonaren askatasunerako eskubidea ukitzen du. Zentzu horretan, EKren 17. I. eta PKLren 489. artikuluek legalitate-printzipioa aurreikusten dute: “*inori ezin zaio askatasuna kendu, legeak ezartzen dituen kasuetan eta moduan ez bada*”.
- Aurreko kapituluetan adierazi dugunez, atxiloketa kautelazko neurrien jurisdikzionaltasunaren salbuespena da. Aztertuko ditugun gainerako kautelazko neurriak ez bezala, atxiloketa Instrukzioko Epaileak ez ezik, partikularrek, poliziak eta beste epaile batzuek (prozesu baten instrukziorako eskudunak ez direnak) ere atxilo dezakete, baldin eta legezko oinarriak betetzen badira. Beraz, kasu horietan, legezko baldintzak bete ezean, posible litzateke *habeas corpus* prozesua hastea, legez kontrako atxiloketa delituarengatik zigor-erantzukizuna eskatzea edo kaltearen ordainketarako uzi zibila egikaritzea.

- Kautelazko neurri hau instrumentala da. Lehen esan dugunez, atxiloketa hasita dagoen edo hasiko den prozesu batekin lotuta dago. Estatuaren *ius puniendiren* erabilerarekin du zerikusia. Beraz, prozesu batekin lotuta egon ezean, gainerako askatasun-mugatzeak edo -gabetzeak ez dira atxiloketak izango.
- Aldi baterako neurria da. Iraupena oso laburra da, eta behin hartu ondoren, beste neurri bat bihurtzen da edo pertsona aske uzten da. Neurriaren iraupena oso mugatuta dagoenez gero, doktrinak dio “oso behin-behineko neurria” dela.

Atxiloketa PKLren 489-501. artikuluetan araututa dago. Dena dela, beste lege batzuek ere kautelazko neurri hau aipatzen dute: maiatzaren 24ko 6/1984 Legea, *habeas corpus* prozedura arautzen duena, BJLOren 398. art., MFEOren 56. art., 163. eta hurrengo art., eta 530. eta hurrengo artikulua, besteak beste.

Amaitzeko aipatu behar da pertsona batzuei ez zaizkiela atxiloketaren arauak aplikatzen. Izan ere, legeek salbuespenak aurreikusten dituzte pertsona zehatzekin. Kasu horietan pertsonak pribilegioak ditu, eta delitu goriaren kasuan edo delituaren larritasuna kontuan hartuta baino ez litzateke posible atxiloketa. Zentzu horretan, diputatuak eta senatariak (EKren 71.2. art.), Komunitate Erkidegoetako Legebiltzarkideak eta Gobernuako Kontseiluetako kideak, Herriaren Defendatzailea eta bere albokoak (apirilaren 6ko 3/1981. LOren 6. art.), Komunitate Erkidegoetako parekoak (azaroaren 6ko 36/1985 LOren 1.1. art.), magistratu eta epaileak (BJLOren 398. art.), eta karrera fiskalaren kideak (MFEOren 56. art.) delitu gorian baino ezin dira atxilotu, edo bere kasuan, aurreko baimena lortuta. Era berean, agente diplomatikoak ezin dira atxilotu; kontsularen funtzionarioak delitu larria burutzen

gutenean bakarrik atxilo daitezke eta behin aurreko baimena lortu ondoren.

4.3.2. Atxiloketa motak

PKLren 490. artikulutik eta 492.era bitarteko artikuluek hainbat atxiloketa mota aurreikusten dituzte, atxiloketaren momentua eta atxiloketa egiteko pertsona legitimatua kontuan hartuta.

Atxiloketa egiteko momentuaren ikuspuntutik, honako atxiloketa mota hauek bereiz daitezke:

- Prozesuaren aurreko atxiloketa. Atxiloketa prozesua hasi baino lehen egin daiteke (PKLren 490.1. eta 2., eta 492.4. art.), hau da, oraindik atxilotuaren kontra prozesua hasirik ez dagoenean.
- Atxiloketa prozesala. Prozesua hasita egonik, pertsona atxilotzen denean (PKLren 490.6. eta 7., 492.2. eta 3. art.).
- Atxiloketa *post sententiam*. Prozesua amaitu ondoren egindako atxiloketa da (PKLren 490.3., 4., 5. eta 7. art.). Kasu honetan, atxiloketa kautelazko neurria baino, benetako exekuzio-neurria dela baieztatu genezake.

Atxilotzeko legitimatuta dauden pertsonen dagokienez, legeak hiru atxiloketa mota aurreikusten ditu:

- Partikularrek egindako atxiloketa (PKLren 490. eta 491. art.).
- Poliziak egindako atxiloketa (PKLren 492. art.).
- Epaileak agindutako atxiloketa (PKLren 487., 420., 494. eta 684.3. art.).
- Ministerio Fiskalak agindutako atxiloketa (MFEOren 5. art.).

A) Partikularrek egindako atxiloketa (PKLren 490. art.).

Hainbat kasutan legeak atxilotzeko legitimazioa ematen die partikularrei. Zeinahi pertsonak beste bat atxilo dezake baldin eta legeak aurreikusitako oinarriak betetzen badira. Baina azpimarratu behar da atxilotzeko ahalmena baino ez dela, hau da, legeak ez du atxilotzeko obligazioa ezartzen (PKLren 490. artikulua dioenez “*edozein pertsonak atxilo dezake*”).

Partikularrek egindako atxiloketak atxilotua berehala epailearen edo poliziaren esku uztea du helburu. Helburu horretaz kanpo, askatasun-gabetze hori ZKren 163.4. artikulua legez kontrako atxiloketa delitua izango litzateke.

Legeak 7 kasu aurreikusten ditu, baina guztiak bi multzotan sailka genitzake (PKLren 490. art.):

1. Delitu gorria. Atxilotuak delitua egiten saiatu edo egiten duen bitartean egindako atxiloketa (PKLren 490. artikulua 1. eta 2. atalak: “*delitua egiten saiatzen dena egiteko momentuan*”, “*in fraganti delitugilea*”). Kasu horretan zigor-prozesua hasi aurretik atxilotzen da pertsona.
2. Atxilotua ihes egin duen inputatu, prozesatu, preso, kondenatu edo auzi-iheslaria denean (PKLren 490. artikulua 3., 4., 5., 6. eta 7. kasuak). Hemen atxiloketa momentu desberdinetan burutzen da: zigor-prozesua amaitu gabe egonik (PKLren 490. artikulua 6. eta 7. atalak: “*amaitu gabeko zigor-auziarengatik atxilotu edo preso izanik, ihes egiten duena*”, “*auzi-ihes dagoen prozesatu edo kondenatua*”), edo prozesua amaitu ondoren (PKLren 490. artikulua 3. 4., 5. eta 7. atalak: “*kondena betetzen dagoen zigor-establezimendutik ihes egiten duena*”, “*zigor-establezimendura edo epai irmoak ezarritako kondena*”).

bete behar duen lekura joateko lekualdatzearen zain dagoenean espetxetik ihes egiten duena”, “aurreko zenbakian aipaturiko establezimendu edo lekura eramana izatean ihes egiten duena”, “auzi-ihes dagoen prozesatu edo kondenatua”

Atxilotu ondoren, partikularrak segidan utziko du pertsona atxilotua epailearen esku (PKLren 496.art.).

B) Poliziak eta Ministerio Fiskalak egindako atxiloketa (PKLren 492. art.).

Aurreko kasuan ez bezala, atxilotu beharraz dihardugu orain. Poliziak ez du atxilotzeko aukera, obligazioa baizik.

Poliziak egindako atxiloketaren helburua partikularrena baino zabalagoa da, izan ere, poliziak ikerketa-eginbideak (galdeketa, identifikaziorako talde-saioa,...) egiteko atxilotzen du pertsona. Eginbideen emaitzen arabera, atxilotua aske edo epailearen esku utziko du.

Legeak ezarritakoaren kontra egindako atxiloketak zigor-erantzukizuna eskatzeko bidea ematen du, ZKren 167. artikulua adierazten duen legez kontrako atxiloketa delituarengatik.

PKLren 492. artikulua 4 egoera aipatzen ditu: *“Polizia judizialeko Autoritate edo agenteak atxilotu beharra izango du”*:

1. Partikularrek atxilotzeko ahalmena duten egoeretan (gorago aipatutako PKLren 490. artikulua 7. atalean). Beraz, kasuaren arabera, atxiloketa-prozesu nagusia hasi baino lehen, prozesua hasita edo prozesua amaitu ondoren egingo da atxiloketa.

2. Espetxealdi zigortzailea baino zigor nagusiagoa duen delituagatik prozesatua den pertsona. ZKren 11. xedapen iragankorraren arabera, espetxealdi zigortzailea 6 hilabetetik 3 urte arteko espetxealdi-zigorra da. Kasu horretan, atxiloketa-prozesu nagusia hasi ondoren egiten da (pertsona prozesatua dago).
3. Zigor arinagoa duen delituagatik prozesatua den pertsona, baldin eta bere aurrekariengatik edo gertaeraren inguruabarrengatik autoritate judizialak deitua denean agertuko ez dela susmatzen denean; autoritate edo agentearen ustez fidantza nahikoa ematen duenean izan ezik. Aurreko kasuan bezala, atxiloketa mota hori prozesua hasita egonik egiten da.
4. Espetxealdi zigortzailea baino zigor arinagoa duen delituagatik prozesatuak ez diren pertsonak, bi baldintza betez gero: batetik, delituzko gertakaria dagoela adierazten duten zio nahikoak daudenean, eta bestetik, atxilotuak ustezko delituzko egitatean parte hartu duela adierazten duten arrazoizko zioak daudenean. Pertsona prozesatua ez dagoenez, prozesu nagusia oraindik ez dela hasi ulertu behar da.

Baina PKLren 492. artikulua aurreikusitakoei beste bat gehitu behar zaie: PKLren 495. artikulua. Posible da falta baten ustezko subjektuaren atxiloketa, helbide ezagunik ez duenean eta fidantza nahikoa ematen ez duenean ere.

C) Epaileak agindutako atxiloketa

Zigor-auzian zehar epaileak agintzen duen pertsona baten askatasun-gabetzea. Batzuetan epaileak, hasieratik (hau da, alde aurreko atxiloketarik egon gabe) atxilotzeko agindua emango du zio desberdinengatik (adib., zitazioa egin ondoren inputatua+ epailearen

aurrean agertzen ez denean, PKLren 487. art., inputazioagatik PKLren 494. art., kereila onartzen denean, etab. edo oro har, aurreko kasuetan ikusitako zioengatik). Beste batzuetan, aldiz, aldez aurretik partikularrek, poliziak edo Ministerio Fiskalak egindako atxiloketetan, pertsona atxilotu ondoren, epaileak atxiloketa berreslea emango du (atxiloketaren luzapena izango da); hau da, atxiloketa berretsi besterik ez du egingo.

e) Ministerio Fiskalak agindutako atxiloketa.

Ministerio Fiskalak ere atxiloketa prebentiboa agindu dezake (MFEOn 5. art.). Legeak berariazko aurreikuspenik ez duen arren, ulertu behar da poliziak atxilotzeko obligazioa duen kasu berberetan Ministerio Fiskalak atxilotzeko agindua eman beharko lukeela.

4.3.3. Oinarriak

Atxiloketaren oinarriak desberdinak dira atxiloketa mota bakoitzean.

A) Partikularrek egindako atxiloketan

Atxiloketa mota horren oinarriei dagokienez, bi kasu bereizi behar ditugu: prozesu aurreko atxiloketaren oinarriak, prozesuan amaitu gabe izanik egindako atxiloketaren oinarriak, eta prozesua amaitu ondorengo atxiloketaren oinarriak.

Atxiloketa prozesua hasi aurretik egiten bada, *fumus boni iuris* edo benetako eskubidearen itxura delitu gorria bera da. Delitu gorria nahikoa da atxiloketa egin ahal izateko. *Periculum in mora* atxilotuaren jarduerak eragin lezakeen epaiaren eraginkortasunik ezaren arriskuan oinarritzen da. Zehazki, ihes egiteko arriskuan edo

frogabideak ezkutatzeko nahiz hondatzeko arriskuan justifikatzen da atxiloketa.

Atxiloketa prozesu nagusia hasita egin bazen, *fumus boni iurisek* adierazten du subjektua (auzia amaitu gabe izanik) ihes eginda edo auzi-ihesean zegoela ulertzeko zentzuzko arrazoi nahikoak zeudela. *Periculum in mora* oinarria, bere aldetik, prozesuan ez agertzeko edo ihes egiteko arriskuan datza.

Amaitzeko, atxiloketa prozesua amaitu ondoren eta epaia emanda egiten bada, argitu beharra dago ez dela benetako kautelazko neurria, exekuzio-neurria baizik, beraz, kasu horretan oinarriak kondena-urratzeari buruzkoak lirateke.

B) Poliziak edo Ministerio Fiskalak egindako atxiloketan

Poliziak egiten duen atxiloketaren oinarriari dagokienez, aurreko kasuan egin dugun bezala, atxiloketa-momentua kontuan hartu behar da. Kasuz kasu egingo dugu.

Atxiloketa prozesua hasi aurretik eginez gero, partikularrek egindako atxiloketari buruz aipatutako oinarriak hartuko dira kontuan (PKLren 492.1. eta 490. art.).

Atxiloketa prozesu nagusian zehar burutzen bada, *fumus boni iuris* inputazioan edo prozesatzean oinarritzen da, edo atxilotuak delituzko egitatean parte hartu duela adierazten duten seinaleetan. Ikusi dugunez, pertsona prozesatua dago (PKLren 492.2. eta 3. art.) edo prozesatzerik ez egon arren, gutxienez delituzko egitatearen eta parte-hartzearen arrazoizko zio nahikoak daude (PKLren 492.4. art.). *Periculum in mora* oinarriari dagokionez, ihes egiteko arriskuan islatzen da. Arrisku hori batzuetan zigorraren larritasunean zehazten da (adib., PKLren 492.2. art.: 6 hilabetetik 3 urte arteko zigorra

baino larriagoa); beste batzuetan, aitzitik, zigorraren larritasuna aintzat hartuta, kasuaren inguruabarrengatik prozesuan ez agertzeko arriskua da (adib. PKLren 492.3. eta 4. art.). PKLren 495. artikulua kasuan (falta-epaiketetan), *periculum in mora* helbide ezagunik ezan eta fidantzarik ezan zehazten da.

Amaitzeko, epaia eman ondorengo atxiloketei dagokienez, berriz esan behar da ez direla benetako kautelazko neurriak, exekuzio-neurriak baizik; beraz, kasu horretako oinarriak kondenatuak askatasun-gabetzea dakarren zigor bat urratzeari eta haren balizko auzi-ihesari dagozkio.

C) Epailleak agindutako atxiloketan

Epailleak agindutako atxiloketaren oinarriak hauek dira: *fumus boni iuris* subjektu atxilotuaren balizko erantzukizunean islatzen da; *periculum in mora* oinarriari dagokionez, ihes egiteko arriskuan zehazten da.

4.3.4. Atxiloketaren iraupena

Gai honi buruz eztabaidak sortu dira; izan ere, kontraesankorrak izan daitezkeen manuak daude. Alde batetik, EKren 17.2. artikulua dugu: horren arabera “*atxiloketa prebentiboak ezin du gertakariak argitzera zuzenduta dauden ikerketak egiteko baino behar-beharrezko denbora iraun*”, dena den, “*gehienezko epea 72 ordukoa da*”. Zentzu berean, PKLren 520.1. artikulua dio atxiloketa prebentiboak ezin duela behar-beharrezkoa dena baino denbora gehiago iraun eta nolnahi ere, 72 orduko gehienezko epean atxilotua aske edo autoritate judizialaren esku utzi beharko dela.

Bestalde, PKLren 496. artikulua 24 orduko epea ezartzen du.

Antza denez, aipatutako manuek kontraesanean dauden arauak ezartzen dituzte; EKren 17.2. eta PKLren 520.1. artikuluek 72 orduko gehienezko epea aurreikusten dute, eta bere aldetik, PKLren 496. artikulua, 24 ordukoa. Hori dela eta, interpretazio desberdinak egin dira. Egile batzuk legezko muga arrunta PKLren 496. artikulua 24 orduko epea delakoan daude; beste batzuk, ordea, PKLren 520.1. II. artikuluan oinarritzen dira esateko PKLren 496. artikulua 24 orduko epea dela gehienezkoa. Izan ere, PKLren 520.1. II. artikulua dio *“lege honetan ezarritako epeen barruan”*. Amaitzeko, beste batzuen iritziz, PKLren 520.1. II artikulua 24 orduko epea derogatzen du (*“eta, edozein modutan, 72 orduko gehienezko epean”* adierazpenean oinarrituta).

Konstituzio Auzitegi eta Auzitegi Gorenaren jurisprudentziaren arabera (Auzitegi Gorenaren ustez lehentasuna eman behar zaio Konstituzioari), kontuan hartu behar den gehienezko epea 72 ordukoa da, atxiloketak ikerketak egiteko behar-beharrezko denbora baino gehiago ezin duela iraun ahaztu barik. Izan ere, atxiloketaren helburua ikerketa-eginbideak egitea denez, 72 orduko epea errespetatuta, legez kontrako atxiloketa izan daiteke denbora horretan ikerketa-eginbiderik egin ezean, edo horiek egiteko behar-beharrezko denbora pasatu ondoren. Partikularrek egindako atxiloketaren iraupenari dagokionez, eginbiderik burutzen ez dutenez, ezin zaio 72 orduko epea aplikatu; beraz, partikularrek atxiloketa egin bezain pronto, epailearen esku utzi beharko dute atxilotua.

Aztertutako gehienezko epeak luzatu egin dira terrorismo kasuetan. Izan ere, PKLren 520. bis 1. artikulua arabera, atxiloketa bi egun gehiago luza daiteke atxilotuak banda armatuetan sartutako subjektuak edo elementu terroristak nahiz matxinoak direnean (*“ikerketa-helburuetarako beharrezko denbora, 48 orduko gehienezko epea arte”*). Hau da, guztira, pertsona horien atxiloketak

bost egun iraun dezake, eta banda edo elementu horien jarduketa ikertzeko helburua du. Baina atxiloketa luzatzeko beharrezkoa izango da epailearen baimena. Baimena atxiloketaren lehenengo 48 orduetan eskatu eta hurrengo 24 orduetan emango da. Luzapen horren oinarria EKren 55. artikuluan dago.

(72 orduko gehienezko epea)	(Luzapena)
	+
(48 ordu: luzapena eskatu baimena)	(24 ordu: (48 orduko epea)

Zentzu berean, ekainaren 1eko 4/1981 LOren 16. eta 32. artikuluek ere atxiloketa luzatzeko aukera ematen dute alarma, salbuespen eta setio-egoeran. Kasu horietan, atxiloketa 10 egun arte luzatzeko baimena ematen du legeak, atxilotutako pertsonaren kontra ordena publikoa aldatu duela adierazten duten susmo oinarrituak badaude. Luzapen hori EKren 55.1. artikuluan oinarritzen da.

4.3.5. Atxilotuaren eskubideak

EKren 17. artikulua atxilotuaren eskubideak arautzen ditu: atxilotutako pertsonak berari dagozkion eskubideei buruz eta atxiloketaren zioei buruz informatua izateko eskubidea du; bestalde, atxilotua ez dago deklaratzera behartuta eta eginbide polizial edo judizialean abokatuaren laguntza izateko eskubidea du. Gainera, aipatutako artikulua dio legeak *habeas corpus* prozedura arautuko duela, legez kontra atxilotu den pertsona berehala epailearen esku uzteko.

PKLren 520. eta 527. artikuluek EKren 17. artikulua garatzen dute, eta eskubide gehiago eransten dizkiote. Horrez gain, prozesua arautzen duen maiatzaren 24ko 16/1984 LO hartu behar da aintzat (beste epigrafe batean aztertuko da).

Hauek dira aipatutako artikuluek aurreikusten dituzten eskubideak:

1. Askatasun-gabetzea atxilotuari (bere pertsonan, izenean eta ondarean) kalte gutxien eragiten dion moduan egin izateko eskubidea. Zentzu horretan, esan beharko litzateke ez dagoela indarra erabiltzerik behar-beharrezkoa denean izan ezik (egintzaren larritasuna eta atxilotuaren jarrera kontuan harturik). Giza Eskubideen Europako Hitzarmenaren 3. artikulua tortura eta tratu jasangaitz eta iraingarriak debekatzen ditu.
2. Atxilotzen zaion momentutik, atxilotuak, berehala, inputatzen zaizkion egintzak, atxiloketaren arrazoiak eta dagozkion eskubideak ezagutzeko eskubidea du (ikus PKLren 520.2.; EKren 17.3.). Partikular batek egindako atxiloketa izanez gero, atxilotuak atxiloketarako arrazoizko zio nahikoak justifikatzea exiji diezaioke partikularrari (PKLren 491. art.).
3. Deklarazioaren ikuspuntutik, atxilotuari dagozkion eskubideak hauek dira: a) Isilik egoteko eskubidea, ez deklaratzeko nahi ez badu, egiten zaizkion galderaren bati edo batzuei ez erantzuteko eskubidea, edo epailearen aurrean bakarrik deklaratu duela esateko eskubidea. b) Bere buruaren aurka ez deklaratzeko eskubidea eta errudun ez aitortzeko eskubidea. c) Interprete batek dohain lagundua izateko eskubidea, gaztelania ulertzen edo hitz egiten ez duenean.
4. Konfiantzazko abokatua izendatzeko edo, dagokionean, ofiziozko abokatua izateko eskubidea; eta horrekin batera, poliziaren nahiz epailearen deklarazio-eginbideetan abokatua aurrean egotea eskatzeko eta hark identitate-azterketetan parte hartzeko

eskubidea. Abokatuaren laguntza honako hauetara mugatzen da:
a) Konstituziozko eskubideak errespetatzen direla babestea, eta horretarako egindako urraketak aktan idatziz jaso daitezela eskatzea. b) Esan dugunez, auzitegi-medikuaren azterketa eskatzea. c) Galdeketa zabaltzeko eskatzea, behin hura amaitu ondoren, bere bezeroaren defentsarako beharrezko datuak sartuta. Era berean, atxilotuak abokatuarekin elkarrizketa pribatua izateko eskubidea du, baina galdeketa amaitu ondoren betiere.

5. Berak nahi duen senideari edo pertsonari atxiloketa eta momentu bakoitzean dagoen lekua jakinarazteko eskubidea. Atzerritarren kasuan, jakinarazpena bere herrialdearen kontsuletxeko bulegoan egingo da, eta adingabe edo ezgaituen kasuetan, babesa duen autoritateari egingo zaio, guraso-agintea, tutoretza edo izatezko zaintza duenari edo Ministerio Fiskalari, haiek ezagutzen ez badira.

6. Auzitegi-medikuak aztertua izateko eskubidea.

Bukatzeko, inkomunikazioaren kasua aztertu beharra dago. Atxiloketa inkomunikatua izan daiteke; inkomunikazio-egoerak atxilotuaren eskubideak murriztea dakar. Kasu horretan, abokatu ofiziozkoa izango da; gainera ez du komunikaziorako eskubidea, ezta bere abokatuarekin elkarrizketatzeko eskubidea ere.

4.3.6. Atxilotua epailearen esku uztea

PKLren 496. artikulua ezartzen duenez, atxilotu ondoren eta behin gehienezko epea bete ondoren, partikularrak edo poliziak atxilotua aske utzi, edo atxiloketaren lekutik hurbilen dagoen epailearen esku utzi beharko du. Baina hiru egoera gerta litezke: pertsonaren kontra jadanik prozesua hasita egotea; oraindik

prozesurik ez egotea, eta amaitzeko, pertsonaren kontra kondena-epaia egotea. Azter ditzagun hiru egoerak:

- Atxiloketa zigor-prozesu batean burutzen bada, bi egoera gerta daitezke. Epaille hurbilena auziaz arduratzen den organoa bada, hark PKLren 505. artikulua (hurrengo kapituluaz aztertuko dugu) adierazten duen entzunaldira deituko du, eta atxilotua epailearen esku utzi zenetik hurrengo 72 ordu barruko eperik laburrenean egingo da (PKLren 498. art.). Entzunaldi horretan, epaileak atxilotuaren egoera pertsonalari buruz erabakiko du, baina behin-behineko askatasun- edo behin-behineko espetxeratze-neurriak hartu ahal izateko, alderdi akusatzaileetako batek eskatu beharko du. Bestalde, epaile horrek auziaz arduratzeko eskumenik izan ezean, eginbide bat jarriko du abian atxilotua identifikatzeko eta atxiloketarako zioak adierazteko; ondoren, organo eskudunari helaraziko dio (PKLren 498. art.).
- Atxiloketa inongo prozesurik egon gabe egiten bada, atxiloketaren lekutik hurbilen dagoen epailearen esku utziko da atxilotua. Epaille bat baino gehiago izanez gero, Guardiako Epailari emango zaio. Prozesurik ez dagoenez, Instrukzioko Epailleak lehenengo eginbideak egin eta atxiloketari buruz erabakiko du (askatasuna, behin-behineko askatasuna edo behin-behineko espetxeratzea) 72 orduko epean, baldin eta auziaz arduratzeko eskuduna bada. Epaille horrek eskumenik izan ezean, pertsona atxilotua eta jardun guztiak bidaliko dizkio eskuduna den organoari (PKLren 499. art.).
- Bukatzeko, atxiloketa epaia eman ondoren egiten bada, kontuan hartu behar da exekuzio-neurria dela. Bere garaian epaia eman bazen, atxilotua jaso duen epaileak kondena bete behar duen

establezimendura bidaliko du, jarraian kondena bete dezan (PKLren 500. art.).

4.3.7. *Habeas corpus* prozesua

EKren 17.4. artikulua oinarri dugu gai honetan: “*Legeak arautuko du habeas corpus prozedura, legearen kontra atxilotua izan dena epailearen esku berehala uzteko*”. Manu hori garatzeko, 1984. urtean Habeas Corpusen Lege Organikoa onartu zen (maiatzaren 24ko 6/1984 LO). Haren bitartez, legean oinarritzen ez diren edo legez kontra egindako atxiloketetan, babes juridikzional eraginkor eta arina sortu zen.

Baina, zertan datza *habeas corpus* prozesua? Atxilotua berehala epailearen esku uztea da, hark atxiloketaren zio edo egoeren kontrako alegazioak egin ahal izateko. Helburua erraza da: epaileak atxiloketa zilegia edo bidegabea den erabakitzea. Laburbilduz, epailearen aurrean agertzea da, hark atxiloketaren legezotasunari buruz erabaki dezan.

Habeas corpora epaileak atxiloketaren legezotasuna eta egoera berehala egiaztatzeko prozedura arina da, eta aldi berean, ulerterraza herritar guztientzat.

Ezaugarriei dagokienez, *habeas corpora* oso prozesu arina da, izan ere, 24 orduko epean amaitu behar du. Gainera, prozesu erraza da: hitzezko agerpena da eta atxilotuak ez du behar ez abokaturik, ez prokuradorerik.

Orain azter dezagun *habeas corpus* prozesuaren bitartez babesten dena. EKren 17.4. artikulua *legez kontrako atxiloketa* aipatzen du; hala ere, galdera bat sortzen da: zer kontrolatzen da *habeas corpus* prozesuaren bitartez, atxiloketaren legalitatea ala, oro har,

askatasun-gabetzearen legalitatea? Habeas Corpusen legearen 1. artikulua kontuan hartuta, esan daiteke *habeas corpus* prozeduraren bitartez askatasun-gabetzeen legez kontrakotasuna kontrolatzen dela; izan ere, artikulua horretan benetako atxiloketak eta atxiloketak ez diren beste askatasun-gabetze batzuk aurreikusten dira. Zentzu horretan, (b) atalean aipatzen da “*legearen kontra sartuta dagoen edozein establezimendu edo leku*”; hots, pertsona bat establezimendu batean sartuta edukitzea ez da atxiloketa formala, baina argi dago askatasun-gabetzea dela. Bestalde, badago Konstituzio Auzitegiaren 1991. urteko epai bat (1991/41), zeinean adierazten den poliziak pertsona bati identifikatzeko egiten dion polizia-etxera joateko “gonbidapena” (agiririk ez edukitzeagatik) ez dela atxiloketa, askatasun-gabetzea baizik; dena den, kasu horretan ere, *habeas corpus* aplikatzeko aukera dago. Beraz, interpretazio zabala egin behar dugu, atxiloketa askatasun-gabetze moduan ulertuta.

Prozedura sustatzeko legitimazioa oso zabala da; HCLoren 3. artikulua araberak, prozesua sustatzeko legitimatuak izango dira: a) Askatasun gabekoa, ezkontidea edo harekin bizi dena, aurrekoak eta ondorengoak, anaia-arrebak eta adin txikiko eta ezgaituen kasuetan, ordezkari legalak; b) Ministerio Fiskala; d) Herriaren Defendatzailea; d) Jurisdikzio-organo eskuduna, ofizioz.

Organo eskuduna zehazteko, legeak subsidiarioak diren eskumenak edo foruak ezartzen ditu:

- Eskumen nagusia: atxilotua dagoen lekuko Instrukzioko Epalea izango da eskuduna. Baina baliteke atxilotua dagoen lekua ez ezagutzea; horretarako, eskumen subsidiarioak ezartzen dira.
- Eskumen subsidiarioak: a) Atxiloketa egin den lekua; b) Atxilotuaren azken berri izan duten lekua.

Aztertuez gain, legeak eskumen berezi bat aurreikusten du terrorismo kasuetan. Horietan Instrukzioko Epaitegi Zentrala izango da eskuduna. Eta eremu militarrean, atxiloteta burutu zen lekuko Instrukzioko Epaile Togadun Militarra.

Habeas corpus prozedurari dagokionez, lehen esan denez, oso erraza da, formalitaterik gabekoa. Ez da beharrezkoa prokuradorearen ordezkapena, ezta abokatuaren laguntza ere. Organo eskudunaren aurrean ahoz edo idatziz egindako eskaeraren bidez hasiko da; ondoren, organo judizialak txosten bat eskatuko dio Ministerio Fiskalari hark bere iritzia eman dezan. Jarraian, epaileak *habeas corpus* prozedura hasteko autoa emango du (edo, dagokionean, ukatu egingo du). Auto horretan ez da funtsari buruzko erabakirik ematen. Prozesua hasitakoan, epaileak 24 orduko epea du askatasun-gabetzea legezko edo legez kontrakoa den erabakitzeke, alderdi biei entzun, eta ekitaldian bertan, froga egokiak (onartzen badira) egin ondoren.

Amaitzeko, organo judizialak auto bidez erabakiko du askatasun-gabetzea legezkoa den; honelakoak izan daitezke erabakiak (HCLOren 8. art.): askatasun-gabetzea legezkotzat hartuz gero, jardunen artxiboa aginduko du; legez kontrakoa dela deklaratu gero, atxilotua aske uztea aginduko du; beste batzuetan, askatasun-gabetzea jarraitzeko aginduko du, baina egoerak aldatu ondoren (adib., establezimendutik aldatzea, legeak ezartzen dituen baldintza edo eskubideak errespetatzea aginduko du,...); eta bukatzeko, atxilotetaren gehienezko epea betea egonez gero, epaileak atxilotua epailearen esku berehala uzteko aginduko du.

Litekeena da atxilotetaren legez kontrakotasuna deklaratzeko, delitua gauzatu dela ikustea (gogora dezagun legez kontrako atxiloteta delitua dela). Horrela izanez gero, epaileak testigantza

hartuko du, eta Ministerio Fiskalari edo Guardiako Epaitegiari jakinaraziko dio, hark delitua jazar dezan (HCLoren 8. art.).

5. KAPITULUA: KAUTELAZKO NEURRI PERTSONALAK (II)

5.1. Behin-behineko espetxeratzea. 5.1.1. Kontzeptua, ezaugarriak eta izaera. 5.1.2. Oinarriak. 5.1.3. Behin-behineko espetxeratzea betetzeko moduak. 5.1.4. Iraupena. Gehienezko epe legalak. 5.1.5. Prozedura. 5.1.6. Kalte-ordainak. 5.1.7. Behin-behineko espetxeratzean betetako denbora abonatzea. 5.2. Behin-behineko askatasuna. 5.2.1. Kontzeptua eta ezaugarriak. 5.2.2. Oinarriak. 5.2.3. Betebeharrak. 5.4. Prozedura. 5.3. PKLren 544. ter artikulua aurreikusitako neurriak.

5.1. Behin-behineko espetxeratzea

5.1.1. Kontzeptua, ezaugarriak eta izaera

Behin-behineko espetxeratzea ordenamendu juridikoak aurreikusten duen kautelazko neurri larriena da; pertsonari askatasuna kentzea da. Kautelazko neurri pertsonal hori autoritate judizialak erabakitzen du zigor-prozesu baten barruan.

Behin-behineko espetxeratzeko kautelazko neurriaren bitartez, inputatuak ihes egiteko arriskua saihesten da, eta aldi berean, prozesuaren garapena eta emango den kondena-epaia beteko dela segurtatzen da.

Behin-behineko espetxeratzearen erregimen juridikoa PKLren 502. artikulutik eta 519.era bitarteko artikuluetan arautzen da, urriaren 24ko 13/2003 LOk aldatuak. Horrez gain, ez dugu ahaztu behar

PKLren bigarren xedapen gehigarria (azaroaren 25eko 15/2003 LOk sartua); horren bitartez, Justizia Ministerioan kokatutako eremu nazionalako Erregistro Zentral batean, inputatuen behin-behineko espetxeratzearen erabaki-, haren gehienezko iraupen- eta amaiera-oharra idatzi beharra ezartzen da. Modu horretan, behin-behineko espetxeari buruzko guztia erregistratua geratzen da.

Hauek dira behin-behineko espetxeratzearen ezaugarriak:

- Hasteko, kautelazko neurri pertsonala da. Jakin dakigunez, EKren 17. artikulua askatasun-eskubidean eta 24. artikulua errugabetasun-presuntzioan du eragina.
- Askatasun-gabetzearen neurria espetxe batean betetzen da, baina zigortutakoei dagokien erregimenetik desberdina den erregimen baten mende.
- Ezohiko neurria da. Egoera normala prozesuaren zain aske egotea litzateke, edo kasua bada, askatasun mugatua. Behin-behineko espetxeratzeak, askatasuna kentzen duen neurrian, salbuespena izan beharko luke; horregatik, legeak zehaztasunez aurreikusten ditu behin-behineko askatasunaren kasuak. PKLren 502.2. artikulua adierazten duenez, behin-behineko espetxeratzeak *“objektiboki beharrezkoa”* izan beharko du eta *“arinagoak diren beste neurri gehiagorik”* ez dagoenean erabakiko da.
- Kautelazko neurri jurisdikzionala dela azpimarratu behar da. Atxiloketa ez bezala, behin-behineko espetxeratzea epailearena ez beste inorena den eskumena da.
- Behin-behineko espetxeratzea instrumentala da. Hasieran azaldu dugunez, kautelazko neurri honen bitartez, pertsonak ihes

egitea saihesten da, prozesua aurrera eramateko eta balizko kondena-epaiaren exekuzioa ziurtatzeko.

- Gainerako kautelazko neurriak bezala, behin-behinekoa eta aldagarria da. Horrek esan nahi du edozein momentutan aldatzeko aukera dagoela, neurria erabakitzeko aintzat hartutako oinarriak aldatzen badira.
- Neurri iragankorra da. Behin-behineko espetxeratzearen iraupena legezko gehienezko epeen mende dago eta inoiz ez da behin betiko bihurtzen.
- Proporzionaltasun-printzipioaren mende garatu behar duen neurria da. Behin-behineko askatasunak konstituzio-helburuetara moldatu behar du, eta pertsonari askatasuna kentzea lortu nahi diren helburu horiekin konparatuz, neurriak zentzuzkoa izan beharko luke. Zentzu horretan, neurria ez legoke batere proportzionatua helburuekin, egindako delituaren zigorra isun bat bada.

Behin-behineko espetxeratzearen izaerari dagokionez, hasieran adierazi dugunez, kautelazko neurri horren bitartez inputatuak ihes egiteko arriskua saihesten da, eta prozesuaren garapena eta emango den kondena-epaia beteko dela segurtatzen da. Hala eta guztiz ere, gehitu behar da, batzuetan, kautelazkoak ez diren beste funtzio batzuk ere betetzen dituela: behin-behineko espetxeratzeak, batzuetan, helburutzat du frogabideak hondatu edo aldatuko direla saihestea (aurrerago ikusiko dugunez), eta beste batzuetan, prebentziozko funtzioa du.

Izan ere, PKLren 503. artikulua (13/2003 eta 15/2003 LOk egindako aldaketaren ondorioz) helburu zehatzak esleitzen dizkio behin-behineko espetxeratzeari: a) prozesuan inputatuaren

presentzia ziurtatzea, b) frogabideak ezkutatzea, aldatzea edo hondatzea saihestea; eta c) delituan berrerortzea prebenitzea. Helburu horien artean, lehenengo biek bakarrik dute kautelazko izaera, inputatuaren ihesa eta froga-elementuen galtzea saihesten baita horrela, eta prozesuaren eraginkortasuna bermatzen. Hirugarrenak, aitzitik, ez du inongo kautelazko funtziorik; ezin da ukatu delituan berrerortzeko arrisku abstraktua saihesteko funtzioa daukanik, eta horrela, gizarte-bakearen legezko bidea denik, baina hala eta guztiz ere, horrek ez du esan nahi behin-behineko espetxeratzea bide egokia denik. Kautelazko neurria kautelazkoak ez diren helburuetarako erabiltzen denean, aurre-delituzko segurtasun neurri bihurtzen da, segurtasunari buruzko gizartearen eskariak asetzeko bide, gizarte-alarma prebenitzeko bide. Kontu horretan ez dugu ahaztu behar, behin-behineko espetxeratzea EKren 24.2. artikularen errugabetasun-presuntzioak babestua dagoen pertsona bati askatasuna kentzea dela. Beraz, neurri honi kautelazkoak ez diren helburuak esleitzeak konstituzionaltasunari buruzko dudak sor ditzake, konstituzionalki onartutako askatasun-murrizteetarako bide desegokia bihurtzen delako.

5.1.2. Oinarriak

Behin-behineko espetxeratzea ezartzeko oinarriak PKLren 503. artikuluan zehazten dira (gogoratu beharra dago artikulua hau 13/2003 eta 15/2003 LOk aldatua izan dela).

Jarraian aztertuko dugu nola zehazten dituen manu horrek behin-behineko espetxeratzearen oinarriak: *fumus boni iuris* eta *periculum in mora*.

A) *Fumus boni iuris*

Behin-behineko espetxeratzea izateko beharrezko izango da:

1. Delituzko izaera duen egitatea (edo egitateak) agerian egotea (PKLren 503.1, 1. eta 502.4. art.). Horrek esan nahi du falta batengatik ez dagoela behin-behineko askatasuna hartzerik, egindakoak delituak direnean bakarrik.
2. Espetxeratzen den pertsonak delituagatik erantzukizun kriminala duela adierazten duten zio nahikoak egotea (PKLren 503.1, 2. art.). Pertsona horrek zigor-erantzukizuna duela adierazten duten zio sendoak egon behar dute. Beraz, oinarri hori delituzko inputazioan zehazten da; PKLren 118. artikuluaaren arabera, inputatuak izan diren pertsonen kontra erabakiko da behin-behineko espetxeratzea.

B) *Periculum in mora*

Gorago azaldu dugunez, oinarri hori ihes egiteko arriskuari buruzkoa da, hau da, kautelazko neurri horren bitartez, inputatua prozesuan agertzea eta emango den epaiaren betearazpena ziurtatzen da. Hala eta guztiz ere, aipatutako 13/2003 LOk, PKLren 503. artikuluan, behin-behineko espetxeratzearen helburuak sartu eta haren oinarriak aldatu ditu. Hain zuzen ere, behin-behineko askatasunaren bitartez, legeak ezarritako helburuetako bat bete behar du; horrela, neurriak legeak aurreikusitako arriskuak bat saihestuko du: ihes egiteko arriskua, frogabideak ezkutatzea, aldatzea edo hondatzea, berrerortzeko arriskua edo biktimak babesik gabe uzteko arriskua. Gainera, legeak berak mugatzen ditu arriskuak eta zehazten ditu kasu bakoitzean baloratu beharreko elementu objektiboak (PKLren 503.1, 3. art.):

1. Inputatuaren presentzia ziurtatzea, ihes egiteko arriskua dagoenean. Kasu horretan, arriskua baloratzeko irizpideak hauek dira:

- Gertaeraren izaera eta inputatuari jar dakiokkeen zigorraren larritasuna. Legeak larritasuna baloratzeko erregelak ere ematen ditu: a) delituak gehienez 2 urteko edo gehiagoko askatasun-gabetzea dakarren zigorra izan beharko du; b) edo 2 urteko baino gutxiagoko askatasun-gabetzea dakarren zigorra, baldin eta inputatuak indargabetu ez diren, edo indargabetu ezin diren zigor-aurrekariak baditu, “doluz” egindako delituarengatik (PKLren 503.1, 1. art.). Argi dago ezar daitekeen zigorra zenbat eta larriagoa izan, orduan eta ihes egiteko arrisku handiagoa dagoela. Dena den, ez dira aipatutako mugak kontuan hartuko, aurrekariak ikusita, aurreko bi urteetan, gutxienez, zeinahi organo judizialek deitzeko eta bilatzeko bilaketa-agindu bi emanak badira; kasu horretan, legeak ulertzen du ihes egiteko benetako arriskua dagoela, eta neurriaren erabakia inposatzen du (PKLren 503.1, 3. a) III. art.).
- Inputatuaren familia-, lan- eta ekonomia-egoera. Kontuan hartuko da, adibidez, familian lan egiten duen bakarra den, lanpostu finkorik duen,... Ihes egiteko arriskua inputatuaren egoera pertsonalarekin lotuta dago; zentzu horretan esan daiteke, ihes egiteko arriskua handiagoa izango dela inputatuak inongo erantzukizun pertsonalik ez duenean, ezta leku zehatz batekin lotzen duten harremanik ere. Era berean, inputatuaren egoera ekonomiko onak atzerrira ihes egiteko arriskua ekar dezake.
- Ahozko epaiketaren berehalakotasuna, epaiketa arinetan bereziki. Kasu horretan, legea ez da batere argia, epaiketaren berehalakotasunak ihes egiteko arrisku handiagoa edo kontrakoa dela ulertzen ez baita.

2. Frogabideak ezkutatzea, aldatzea edo hondatzea saihestea, arrisku oinarritu eta zehatza badago. Legeak arrisku hori baloratzeko hainbat elementu ezartzen ditu:

- Arrisku posiblea ez da nahikoa, baizik eta arrisku oinarritu eta zehatza izan beharko du.
- Gainera, ezin da arrisku hori ondorioztatu defentsa-eskubidea jardutetik edo ikerketetan inputatuaren laguntza ezagatik bakarrik. Errugabetasun- presuntziorako eskubideak inputatua aske uzten du bere errugabetasuna frogatzetik, eta era berean, delituaren ikerketarako eta kondenarako jarduketa positiboetatik salbuesten du.
- Froga-iturrietara iristeko inputatuaren gaitasuna, bera bakarrik edo hirugarrenen bitartez; edo beste inputatu batzuegan, lekuko edo perituengan, edo izan litezkeenengan eragina izateko gaitasuna. Inputatuak froga-iturriari kalte egiteko benetako gaitasuna izan behar du, eta barne hartzen da (froga pertsonaletan) lekukoak, perituak edo inputatututideak hertsatzeko gaitasuna.

3. Inputatuak biktimaren ondasun juridikoen aurkako jarduketa saihestea. Posible da behin-behineko espetxeratzea biktima ZKren 173.2 artikulua zehazten dituen pertsonetarako bat denean, hots, ezkontidea, ezkontide ohia, harreman afektiboaren bitartez lotutako pertsona, seme-alabak, ardurapekoak, aurrekoak eta inputaturen mendeko ezgaituak. Kasu horretan ez da PKLren 503.1, 1. artikulua aurreikusitako zigorraren larritasuna kontuan hartzen. Behin-behineko espetxeratzearen bidez biktimari emandako babesa uztailaren 31ko 27/2003 Legearen ondorioa da; izan ere, lege horrek etxeko indarkeriaren biktimak babesteko agindua arautzen du. Kasu horretan, behin-

behineko espetxeratzea ez da PKLren 544. ter artikulua aurreikusitako babes-aginduaren alternatiba; oinarriko eskubideetan eragin gutxien duen kautelazko neurriak lehentasuna izango du betiere, baina horrek ez du esan nahi behin-behineko espetxeratzea erabaki ezin daitekeenik, delitua berriz egiteko berehalakoa denean eta urruntze-agindua nahiz biktimarengana hurbiltzeko debekua nahikoak ez badira.

4. Inputatuak beste delitu batzuk egin ditzan saihestea, edo beste hitz batzuetan, delituan berrerortzeko arriskua saihestea (PKLren 503.2 art.). Kapituluaren hasieran adierazi genuenez, kasu horretan, behin-behineko espetxeratzea delinkuentziaren prebentzioan oinarritzen da. Berrerortzeko arriskua baloratzeko kontuan hartu beharreko elementuak hauek dira:

- Egindako egintza doluzko delitua denean bakarrik izango da egokia behin-behineko espetxeratzea. Delitu hori 2 urteko edo gehiagoko askatasun-gabetzea dakarren zigorrak gaztigatua izan behar du (hau da, PKLren 503.1. artikulua 1. eta 2. baldintzak bildu behar dira).
- Kontuan hartuko dira bai gertakariaren inguruabarrak bai egin litezkeen delituen larritasuna. Argi dago legeak aurreikusitako elementu horiek zabalegiak direla, eta eskasak, delituak berriz egiteko benetako arriskua baloratzeko. Egile batzuen ustez, manuak Zuzenbide Estatu batean susmagarritzat har daitezkeen irizpideak sartzen ditu, gizarte-arriskugarritasun edo marjinaltasun hutsa, besteak beste. Gainera oso zaila da jakitea zein izango den oraindik burutu ez den delitu baten larritasuna.
- Bukatzeko, zigorraren larritasuna kontuan hartuko da, inputatuak delituzko egitateak burutzeko beste pertsona

batekin edo batzuekin adostasunean eta era antolatuan jarduten duela delituzko egintzak burutzeko, edo delituzko egintzak maiz egiten dituela era arrazoituan ondorioztatzea baldin badago, aurrekarietatik, poliziak dituen datuetatik edo jardunetatik. Kasu horretan, delituen ohikotasuna eta talde antolatuen bitartez jarduketa prebenitzera zuzentzen da kautelazko neurria. Elementu horiek delituzko berrerortzea ondorioztatzeko seinaleak diren arren, egoera horiek oinarrituta egon behar dute, inputatua aldeztu aurretik kondenatua izan delako edo epai batek banda antolatuan jarduten duela esaten duelako.

5.1.3. Behin-behineko espetxeratzea betetzeko moduak

Behin-behineko espetxeratzea legeak zehaztutako hainbat modutan bete daiteke, inputatuaren inguruabarren edo delituaren arrakasta lortzeko helburuaren arabera. PKLk behin-behineko espetxeratzea betetzeko hiru modu aurreikusten ditu: behin-behineko espetxeratze komunikatua, behin-behineko espetxeratze inkomunikatua eta behin-behineko espetxeratze arindua. Azter ditzagun hirurak.

A) Behin-behineko espetxeratze komunikatua edo arrunta

Behin-behineko espetxeratzea betetzeko modu arrunta da. PKLren 520.1. artikulua arabera, behin-behineko espetxeratzea eta atxiloketa atxilotuari kalte gutxien eragiten dion moduan egin behar da; hau da, ahalik eta gutxien mugatu behar dira presoaren edo atxilotuaren eskubideak behin-behineko espetxeratuta dagoen bitartean. Oraindik kondenatuta ez dagoenez gero, zuzenean Instrukzioko Epaiaren mende egongo da eta ez zaio espetxe-erregimena osorik aplikatuko.

Beraz, prebentziozko presoeri komunikazio-eskubideak bermatu beharko zaizkie. Izan ere, PKLren 523. artikulutik eta 526.era bitarteko artikuluetan presoen komunikazio-eskubideak zehazten dira: presoak abokatuarekin kontaktuan jar daiteke; bisitak izan ditzake; kanpoko pertsonekin harremanetan jar daiteke, telefonoz edo postaz, etab.

B) Behin-behineko espetxeratze inkomunikatua

Atxilotuen eta prebentziozko presoen egoera arrunta komunikazioa bada ere, batzuetan, zigor-ikerketaren arrakasta lortzeko asmoz, inkomunikazioa erabakitzen da. Presoen inkomunikazioak eginbideen arrakasta lortzea du helburu, baina PKLren 509. eta 510. artikuluek ezarritako baldintzak errespetatuta baino ez da posible izango. Inkomunikazioaren zioak, eta kasua denean, haren luzapenarenak adierazten dituen auto bidez erabakitzen da (PKLren 509.3. art.).

PKLren 509.1. artikulua (13/2003 LO eta azaroaren 25eko 15/2003 LOren arabera idatziak) presoak (edo atxilotuak) inkomunikatzeko zioak zehazten ditu: ihes egiteko arriskua, biktimaren ondasun juridikoen aurkako jarduketak, delituarekin zerikusia duten frogabideak ezkutatzea, aldatzea edo hondatzea, edo delituzko egintza berriak egitea saihestea. Hau da, behin-behineko espetxeratze inkomunikatua erabakitzeko, beharrezkoa izango da ikerketaren arrakastak huts egiteko arriskua egotea.

Inkomunikazioak epe mugatua du; ezingo du arriskuak saihesteko eginbideak premiaz egiteko behar-beharrezko denbora baino gehiago iraun. Dena den, ezin izango da 5 egunez baino gehiagoz luzatu (PKLren 509.2 I art.). Salbuespen bat dago ordea: banda armatu eta elementu terrorista nahiz matxinoek, edo bik edo pertsona gehiagok adostasunean eta era antolatuan egindako delituak direnean; kasu

horretan, gehienez, beste 5 eguneko luzapena posible litzateke. Bestalde, inkomunikazio-egoera amaituta eta presoa komunikatuta izanik, bigarren inkomunikazio bat erabaki daiteke, baldin eta ikerketaren edo auziaren bilakaerak hala eskatzen badu, baina ezin izango du 3 eguneko epea gainditu (PKLren 509.2 II. art.).

Preso inkomunikatuaren eskubideen aldetik, honako hau kontuan hartu beharko genuke (PKLren 510 art. 527.arenekin lotuta): inkomunikazioan zehar, presoak ezin izango ditu preso guztiek dituzten eskubideak izan, 520. artikulua izan ezik, baina manu horri dagokionez ere, murrizketak izango ditu: a) Edozein kasutan, abokatua ofizioz izendatuko zaio; inputatuak ez du konfiantzazko abokatua izendatzeko aukerarik. b) Ez du eginbidearen amaieran abokatuarekin elkarrizketa pribaturik izateko eskubidea. c) Ez du senide edo aukeratutako pertsonari atxilotetaren eta zaintza lekuaren komunikazioa ematerik. d) Legeak parte hartzeko aukera ematen dion eginbideetara aurkeztea izango du, baldin eta bere agerpenak inkomunikazioaren objektua hondatzen ez badu. e) Berak ekartzen dituen efektuak gordetzen utziko zaio inkomunikatuari, inkomunikazioaren helburuak hondatzen ez baditu. f) Ezin izango du komunikaziorik jaso edo egin, epaileak edo auzitegiak baimentzen duenean izan ezik, baldin eta espetxeratze inkomunikatuaren helburua hondatzen ez badu, dagokionean neurri egokiak hartuta. g) Bestalde, egintzak ebazteko epaileak edo auzitegiak izendatutako bigarren auzitegi mediku batek aztertua izateko eskubidea izango du, atxilotuak hala eskatzen duenean.

D) Behin-behineko espetxeratze arindua

1931ko irailaren 10eko legeak Justizia Militarreko Kodearen bi manu sartu zituen PKLn behin-behineko espetxeratze arinduari buruz; horren bitartez, organo jurisdikzionalak behin-behineko espetxeratzea betetzeko egoerak arintzeko aukera zeukan

(epailearen irizpideen arabera) eta egia esanez gero, helbide-atxilotzea zetzan. Baina 1980. urtera arte, legeak ez zuen berariaz behin-behineko espetxeratze mota hori arautu. 505. II. artikuluan egin zuen: inputatuaren gaixotasuna zela eta, espetxeratzeak osasunarentzat arrisku larria zekarrenean, behin-behineko espetxeratze arindua erabaki zitekeen.

Gaur egun, PKLak behin-behineko espetxeratze arindua betetzeko bi modu aurreikusten ditu 508. artikuluan: batetik, presoaren gaixotasuna dela-eta helbidean betetzea, beharrezkoak diren zaintza-neurriak hartuta; eta bestetik, inputatua desintoxikazio edo substantzia estupefazianteen ohitura uzteko tratamendupean dagoenean, zentro berezi batean betetzea. Jarraian, bi motak aztertuko ditugu.

Lehenengo motari dagokionez, gaixotasuna dela eta, askatasun-gabetzeak inputatuaren osasunarentzat arrisku larria eragin dezakeenean, behin-behineko espetxeratzea bizilekuan bertan betetzea erabaki dezake epaileak edo auzitegiak, zaintza-neurriak hartuta. Hala eta guztiz ere, jurisdikzio-organoak gaixotasunaren tratamendurako beharrezko orduetan zehar helbidetik irtenaldiak egitea baimen dezake, baina beharrezkoak diren zaintza-neurriak hartuta betiere (PKLren 508.1. art.). Alabaina, legeak ez ditu zaintza-neurri horiek zehazten. Beraz, inputatuaren gaixotasunagatik osasunerako arrisku larria da modalitate honen oinarria.

Bigarren motari dagokionez, inputatua desintoxikazio edo substantzia estupefazianteen ohitura kentzeko tratamendupean dagoenean aplikatzen da. Kasu horretan, jurisdikzio-organoak espetxeratzea zentro berezi batean sartzearekin ordezkatzera erabaki dezake, espetxean sartzeak tratamenduaren emaitza honda badezake. Baina neurri hori hartu ahal izateko, beharrezkoa da epaitzen diren egitateak tratamenduarenak baino lehenagokoak

izatea. Behin neurria hartu ondoren, inputatua zentro ofizial batean edo legezko organizazio batean sartuko da tratamenduarekin jarraitzeko eta ezin izango da zentrotik irten erabakia hartu zuen jurisdikzio-organoaren baimenik ez badago (PKLren 508.2. art.).

5.1.4. Iraupena. Gehienezko epe legalak

Bi dira gai honetan aintzat hartu beharreko kontuak: lehenik, behin-behinekotasuna, kautelazko neurri guztien ezaugarria, eta bigarrenik, behin-behineko espetxeratzearen gehienezko epe legala. Azter ditzagun biak:

A) Behin-behinekotasuna

Kautelazko funtzioa betetzen duenez, behin-behineko espetxeratzeak neurria oinarritu zuten zioak mantentzen diren bitartean baino ez du iraungo. Beraz, behin-behineko neurriaren iraupena oinarrien arabera izango da. PKLren 504.1. artikulua dioenez, behin-behineko askatasunak bere helburuak lortzeko behar-beharrezkoa den denbora besterik ez du iraungo eta oinarriak mantentzen diren bitartean. PKLren 528. artikulua gauza bera dio: *“behin-behineko espetxeratzeak zioek irauten duten denbora besterik ez du iraungo”*. Horregatik, errugabetasuna egiaztatuta edo neurriaren oinarriak desagertu ondoren, aske utzi beharko da presoak (*rebus sic stantibus* erregela aplikatzen da). Dena dela, ahalik eta denbora gutxien espetxeratuta mantentzeko ahalegina egingo da, eta neurria behar adina aldiz aldatzeko aukera dago (PKLren 539. art.).

B) Gehienezko epe legala

Nahiz eta kautelazko neurriaren zioak mantendu, denborazko muga bat jarri behar da. Ez dugu ahaztu behar neurri horren bitartez oraindik kondenatu ez den pertsonari askatasunerako eskubidea

kentzen zaiola. Horregatik, babes moduan, EKren 17.4. artikulua dio legeak zehaztuko dituela (atxiloketa eta) behin-behineko espetxeratzearen gehienezko iraupen-mugak. Izan ere, PKLren 504.2 artikulua muga horiek zehazten ditu. Era berean, Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren jurisprudentziak azpimarratzen du behin-behineko espetxeratzeak “*arrazoizko iraupena*” izan beharko duela, eta kasu zehatz bakoitzean baloratu beharko dela, egon diren inguruabar guztiak aztertuta (gertaeraren larritasuna, ihes egiteko arriskua,...).

Esan dugunez, PKLren 504.2. artikulua behin-behineko espetxeratzearen gehienezko epeak aurreikusten ditu. Epe horiek 2003. urtean erreformatu ziren. Artikulu horren epeak egindako delituzko egintzen arabera izango dira; beraz, behin-behineko askatasunaren iraupena larritasunarekiko proportzionala izango da. Honako hauek dira: behin-behineko espetxeratzea inputatuaren presentzia ziurtatzeko, biktimaren ondasun juridikoaren aurkako jarduketa edo beste delituzko egintza batzuk burutzea saihesteko erabaki denean (PKLren 503.1, 3. a) eta c) eta 503.2 art.), eta delituzko egitateak hiru urtekoa edo gutxiagoko askatasun-gabetzea dakarren zigorra badu, gehienezko epea urtebetekoa izango da.

Baina delituzko egintzetarako legeak aurreikusitako zigorra 3 urtekoa baino gehiagokoa izanez gero, behin-behineko espetxeratzeak ezin izango du bi urte baino gehiago iraun.

Delituaren zigorra: = ~~edo~~ \longrightarrow 3 urte urtebete

Delituaren zigorra: \longrightarrow 3 urte 2 urte

Ikus daitekeenez, gehienezko iraupena zigorraren larritasunaren araberakoa da. Baina bi epeak luzatzeko aukera dago, epe horietan auzia ez dela epaituko aurreikusten denean. Gehienezko luzapenak hauek dira: delituzko egintzak 3 urteko edo gutxiagoko askatasun-gabetzea dakarren zigorra aurreikusita izanez gero, posible litzateke 6 hilabete arteko luzapena; delituzko egitateak aurreikusita duen zigorra 3 urtekoa baino gehiagokoa izanez gero, 2 urte arteko luzapena posible da. Kasu bietan luzapen bakarra da.

Delituaren zigorra: = ~~edo~~ \longrightarrow 3 urte
6 hilabete

Delituaren zigorra: > 3 urte \longrightarrow 2 urte

Bestalde, kondena-epaia emandakoan, inputatuak errekurrituz gero, behin-behineko espetxeratzea ezarritako zigorraren erdira arte luza daiteke. Adib., 10 urteko presoaldi-zigorra ($10:2=5$); auzian zehar 3 urte eman baditu espetxean, kondenatu ondoren errekurrituz gero, $(5-3)$ 2 urte gehiago eman ditzake espetxean.

Behin-behineko espetxeratzea frogabide garrantzitsuak ezkutatzea, aldatzea edo hondatzea saihesteko erabaki denean, gehienezko epea 6 hilabetekoa da (PKLren 504.3. I. eta 503.1.3. b) art.). Kasu horretan, legeak ez du epea luzatzeko aukerarik ematen. Baina espetxeratze inkomunikatua edo sumarioaren sekretua erabaki bada, 6 hilabeteko epea bete baino lehen inkomunikazioa edo sekretua altxatuz gero, jurisdikzio-organoak behin-behineko oinarria mantentzen dela motibatu beharko du, kasu horretan, frogabide garrantzitsuen ezkutatze-, aldatze- edo hondatze-arriskuarena.

Epeak arrazoizko eran eta kasu zehatzaren inguruabarrak aintzat izanik aplikatu beharko dira. Horiek zenbatzeko, kontuan hartuko dira bai atxilotuta bai auzi beragatik behin-behinekoz espetxeratuta eman duen denbora (PKLren 504.5. I art.). Baina ez dira kontuan hartuko Justizia Administrazioari leporatu ezin zaizkion auziaren bidegabeko luzapenak (PKLren 504.5 II. art.).

Esan beharra dago gehienezko epeak bete ondoren, inputatua aske utzi beharko dela. Dena den, gehienezko epeak betetzeagatik eta inputatua askatasunean izanik, epaileak deitua denean bidezko ziorik gabe agertzen ez bada, behin-behineko espetxeratzea berriro erabakitzeko aukera dago (PKLren 504.4. art.). Legeak aukera hori eman arren, kasu horretan ez du gehienezko eperik zehazten. Horri dagokionez, Konstituzio Auzitegiak deklaratu du Konstituzioaren kontrakoa dela.

Behin-behineko espetxeratzearen gehienezko epearen bi herenak bete direnean, auziaz arduratzen den epaileak edo auzitegiak eta Ministerio Fiskalak Gobernu Salaren Presidenteari eta Fiskal Buruari emango diete egoeraren berri, eta jardueri gehienezko arintasuna emateko beharrezko neurriak erabakiko dituzte (PKLren 504.6. art.).

Amaitzeko, behin-behineko espetxeratzearen inguruan gertatzen den guztia kautelazko neurrien Erregistro Zentralean idatziko da (PKLren bigarren Xedapen Gehigarria).

5.1.5. Prozedura

PKLren 505. artikulutik eta 507.era bitarteko artikuluek eta 539. artikulua (13/2003 LOk aldatuak) behin-behineko espetxeratzearen eta behin-behineko askatasunaren prozedura arautzen dute.

Behin-behineko espetxeratzea erabakitzeko organo eskuduna desberdina izango da prozesuaren momentuaren arabera. Behin-behineko espetxeratzea instrukzioko fasean erabakiz gero, epaile edo magistratu instruktoreak izango du eskumena. Baina kautelazko neurri hori erabakitzeko momentuan oraindik prozesurik ez badago, lehenengo eginbideak egiten dituen epaile edo magistratu instruktorea izango da eskuduna. Eta azkenik, ahozko epaiketan zehar erabakitzen denean, auzia epaitu behar duen epaile edo auzitegia izango da organo eskuduna (PKLren 502. art.). Horrez gain, epaia eman ondoren eta apelazio edo kasazio-helegitea erabakitzeke egonez gero, organo eskuduna auzialdian epaitu zuena izango da (horrela ondoriozta daiteke PKLren 861. bis a artikulutik).

Zinpekoen Epaimahaiaren Lege Organikoa onartu baino lehen, epaileak egoki iritzitako kautelazko neurria har zezakeen, inolako kontraesanik egon gabe. Gaur egun, aldiz, fidantzarik gabeko behin-behineko askatasuna denean izan ezik, epaileak kautelazko neurriren bat hartu ahal izateko, alderdietako batek eskatu beharko du. Beraz, alderdietako bakar batek ere eskatzen ez badu, epaileak inputatu-atxilotua askatasunean jarri beharko du (PKLren 505.4. eta 539. III. art.).

Kautelazko neurriaren eskaera egin ahal izateko, jurisdikzio-organoko entzunaldi batera deituko die Ministerio Fiskalari, inputatuari eta bere abokatuari, eta prozesuan aurkezturiko gainerako alderdiei. Atxilotua epailearen esku utzi zen momentutik 72 orduko epean ahalik eta lasterren egingo da entzunaldia (PKLren 505.2. art.). Hartan, alegazioak egin eta frogabideak proposatu ahal izango dituzte, ekitaldiak bertan egin ahal badira edo gehienez 72 orduko epearen barruan (PKLren 505.3. art.). Alderdi guztiei entzundakoan eta egindako frogak aztertuta, fidantzarekin behin-behineko askatasunari nahiz espetxeratzeari buruz erabakiko du epaileak. Alderdi bakar batek ere eskatu ezean, epaileak aske utzi

beharko du jarraian atxilotua (PKLren 505.4. art.). Beraz, azpimarratu behar da kautelazko neurriren bat hartzeko, alderdi batek eskatu beharko duela alde zuzenetik, fidantza gabeko behin-behineko askatasuna denean izan ezik.

Baina zer gertatzen da entzunaldia egin ezin bada? Zeinahi arrazoi dela eta, entzunaldia egin ezin bada, epaileak berak behin-behineko espetxeratzea erabakiko du, baldin eta kautelazko neurri horren oinarriak betetzen badira, edo fidantza duen behin-behineko askatasuna. Hala ere, hurrengo 72 orduko epean berriro deitu beharko die alderdiei entzunaldia egiteko, eta hartan erabakia berretsi edo aldatuko du (PKLren 505.5. art.).

Gehitu behar dugu behin-behineko espetxeratzea eta askatasuna (fidantzapekoa edo fidantza gabekoa) erabakitzen duten autoak auzi osoan zehar alda daitezkeela (PKLren 539. I. art.). Horregatik, inputatua askatasunean utzi edo espetxean sar daiteke, edo fidantza alda daiteke beharrezkoa den beste aldiz (PKLren 539. II). Baina askatasunean dagoenaren behin-behineko espetxeratzea edo askatasun fidantzapekoa erabakitzeko, edo hasiera batean erabakitzeko behin-behineko askatasuna larriagotzeko (fidantza ezartzeko edo behin-behineko espetxeratzetik aldatzeko), entzunaldia egin beharko da, fidantza gabeko behin-behineko askatasuna erabakitzen denean izan ezik (PKLren 539. III. art.).

Bestalde, posible da atxilotua jasotzen duen epailea auzirako eskuduna ez izatea eta eskudunaren esku utzi ezin izatea 72 orduko epe horren barruan. Horrela izanez gero, eskuduna ez den epaileak entzunaldia egingo du eta egokia den neurria hartuko du. Hala ere, ondoren, epaile eskudunak inputatuari entzungo dio eta neurria berretsi, aldatu edo altxatuko du (PKLren 505.6. art.).

Erabaki guztiak auto bidez emango dira. Auto motibatua izango da, eta neurriaren beharra eta helburuekiko proportzionaltasuna oinarritzen duten arrazoiak adieraziko ditu (PKLren 506.1. art.). Batzuetan, espetxeratze-autoan auzia sekretu deklaratu denean, sekretuaren helburua babeste aldera, aipatu behar izan ez diren berezitasunak adieraziko dira notifikatu beharreko kopian; hala ere, autoaren notifikazioan betiere inputaturiko delituzko egitatearen deskribapen laburra eta lortu nahi diren helburuak aipatuko dira. Baina sekretua altxatu ondoren, autoa osorik notifikatuko zaio berehala inputatuari (PKLren 506.2. art.).

Delituek zuzenean kaltetu eta ofenditu dituztenei jakinaraziko zaizkie autoak, haien segurtasuna ukituta gera badaiteke (PKLren 506.3. art.).

Behin-behineko espetxeratzea erabakitzen, luzatzen edo ukatzen duten autoak, eta inputatuaren askatasuna erabakitzen dutenak apelazioan errekurri daitezke PKLren 766. artikulua arabera, eta lehentasunezko izapidetzea izango dute. Errekurtsoa, gehienez, 30 eguneko epean erabakiko da (PKLren 507.1. art.). Eta bukatzeko, eginbideen sekretua zela-eta, hasiera batean, espetxeratze-autoa inputatuari osorik notifikatu ez bazitzaion, hark autoa osorik errekurritzeko aukera izango du notifikatzen zaionean (PKLren 507.2. art.).

5.1.6. Kalte-ordainak

EKren 121. artikulua jurisdikzioko erabilpenean eragindako kalteengatik estatuak duen ondare-erantzukizuna aurreikusten du. Horretan bi egoera aipatzen dira: alde batetik, akats judizialak eragindako kaltea, eta bestetik, Justizia Administrazioaren ez-ohiko funtzionamenduak eragindako kaltea.

Aipatutako manuairen garapenean, BJLOren 292. artikulutik eta 297.era bitarteko artikuluek akats judiziala eta Justizia Administrazioaren ezohiko funtzionamenduaren ondorioak aurreikusten dituzte. Kasu horietan eragindako kalteak estatuaren kontu izango dira; hau da, kalteak jasan dituen pertsonak kalte-ordaina eskatzeko aukera du. Baina aipatutako arauen artean, BJLOk estatuaren erantzukizuna den beste kasu berri bat gehitzen du, behin-behineko espetxeratzearena (PKLren 294.1. art.). Zentzu horretan, behin-behineko espetxeratzearen kautelazko neurria jasan ondoren, inputatu den egitatea ez existitzeagatik edo zio beragatik behin betiko largespena ematen denean, absolbituak gertatzen direnek kalte-ordaina eskatzeko eskubidea izango dute, baldin eta kalteak badira.

BJLOren 294.1. artikulua hitzez hitz interpretatuz gero, “egitatea ez existitzeagatik” absoluzio-epaia edo largespena ematen denean baino ez legoke arau hori aplikatzeko aukerarik; beraz, gainerako kasu guztiak baztertuta geratuko lirateke (esate baterako; zigorerantzukizunik eza inguruabar salbuesleagatik edo egitatea delituzkoa ez izateagatik); hau da, artikulua aplikazio praktikoa gehiegi mugatuko litzateke.

Izan ere, Konstituzio Auzitegiak (98/1992. epaian) era zabalean interpretatu du estatuari kalte-ordaina eskatzeko aukera hori. Konstituzio Auzitegiaren interpretazioaren arabera, behin-behineko espetxeratzea jasan duten pertsonak kalte-ordaina eskatzeko aukera izango dute, bai berriaz aurreikusitako kasuan (hasieran inputatutako egitatea ez existitzeagatik) bai egitateetan parterik izan ez zutela frogatzen denean.

Dena den, manu horren interpretazioa hitzez hitz eginda ere, berriaz sartuta ez dauden gainerako kasuak BJLOren 292.2.

artikulutik bidera litezke, hau da, akats judizialek edo Justizia Administrazioaren ezohiko funtzionamendutik.

5.1.7. Behin-behineko espetxeratuta betetako denbora abonatzeari.

Behin-behineko espetxeratzean iragandako denbora kontuan hartzen da prozesua amaitu ondoren inputatua kondenatzen bada. ZKren 58. eta 59. artikuluek espetxean emandako denbora abonatzeko (edo kentzeko) aukera garatzen dute, eta hainbat kasu arautzen dituzte.

Hasteko, emandako kondenak askatasun-gabetzea dakarren zigorra ezarri gero, auzian bertan jasandako behin-behineko espetxeratzearen denbora osorik abonatu du epaitu duen epaile edo auzitegiak; hau da, ezarritako zigorrari behin-behineko askatasunean iragandako denbora kenduko zaio (ZKren 58.1. art.). Abonatzeari automatikoa izango da.

Bestalde posible da auzi batean jasandako behin-behineko espetxeratze-denbora beste prozesu desberdin batean abonatzeari. Espetxeratuta izan baino lehen egindako beste egitate batzuegatik askatasun-gabetzea dakarren zigorra ezartzen bada, espetxean emandako denbora hori abonatu da, beste prozesu batean hartutako kautelazko neurria izan arren. Espetxeratuen Zaintzako Epaitegiak erabakiko du ofizioz edo subjektu pasiboak eskatuta, beste auzi batean abonatu ez dela konprobatu eta Ministerio Fiskalari entzun ondoren (ZKren 58.3. art.). Baina auzi baten behin-behineko espetxeratze-denbora beste auzi batean abonatzeko, delituzko egitateek kautelazko neurriaren aurrekoak izan beharko dute (ZKren 58.4. art.).

Orobat, erregela horiek kautela moduan erabakitako eskubide-gabetzeetan ere aplikatuko dira (ZKren 58.4. art.).

Askatasun-gabetzea ez den beste zigor bat ere ezarriz gero, abonatzeko aukera legoke, baina kasu horretan, epaileak bere irizpideen arabera konpentsatuko du espetxean emandako denbora. Honela dio ZKren 59. artikulua: *“Jasandako kautelazko neurria eta ezarritako zigorra izaera desberdinekoak badira, epaileak edo auzitegiak aginduko du ezarritako zigorraren zati bat bere iritziz ordaindurik dagoen zatian betetzat jotzea”*.

5.2. Behin-behineko askatasuna

5.2.1. Kontzeptua eta ezaugarriak

Esan liteke askatasuna inputatuaren egoera normala dela; beraz, behin-behineko askatasuna ezohiko neurria da. Hala eta guztiz ere, hainbat kasutan, inputatuaren askatasuna mugatu beharra dago, baina osorik kendu gabe. Hau da, behin-behineko espetxeratzea eta inputatua ez denaren askatasunaren tarteko egoera litzateke behin-behineko askatasuna.

PKLren 520.2. artikulua arabera, askatasuna beharrezko kasuetan baino ezin da mugatu, pertsona segurtatzeko eta auziaren instrukzioari kalte egin diezaioketen komunikazioak galarazteko. Beraz, behin-behineko askatasunari esker, prozesuan inputatuaren presentzia ziurtatzen da; legeak horretarako hainbat betebeharrak arautzen ditu.

PKLren 528. artikulutik eta 544. ter-era bitarteko artikuluek behin-behineko askatasuna arautzen dute; horietan, erreferentziak egiten zaizkio behin-behineko espetxeratzeari. Ez dugu ahaztu behar behin-behineko askatasuna behin-behineko espetxeratzearen alternatiba moduan arautzen dela.

Kautelazko neurri horren ezaugarriei dagokienez, honako hauek azpimarra daitezke:

- Behin-behineko askatasuna inputatuaren egoera normala da. Erregela orokorra da inputatua askatasunean egotea prozesuaren zain.
- Kautelazko neurri pertsonala da. Eta horren bitartez prozesua, bere garapena, eta emango den epaiaren exekuzioa segurtatzen da.
- Kautelazko neurri jurisdikzionala da. Jurisdikzio-organo batek baino ezin du behin-behineko askatasuna erabaki.
- Behin-behineko askatasuna instrumentala da, zigor-prozesu nagusiarekin lotuta doalako betiere.
- Horrez gain, behin-behinekoa eta aldagarria da; horregatik, prozesuan zehar edozein momentutan berriz aztertzeiko aukera dago oinarriak aldatzen badira.
- Aurreko kautelazko neurrietan azaldu genuenez, neurri proportzionala izan behar du.

5.2.2. Oinarriak

Behin-behineko askatasunaren oinarriak aztertzeiko behin-behineko espetxeratze-oinarriak kontuan hartu behar dira. Izan ere, PKLren 529. artikulua xedatzen du behin-behineko espetxeratzea erabaki ez denean, behin-behineko askatasuna aginduko dela. Hau da, behin-behineko espetxeratzea erabakitzeko baldintzak bete ezean, behin-behineko askatasuna izango da egokia (PKLren 503. artikulua).

Kautelazko neurri horrek ez du ezaugarri autonomorik, baizik eta behin-behineko espetxeratzearen mende dago.

Epaileak auto bidez erabakiko du behin-behineko askatasun fidantzapekoa edo fidantza gabekoa. Auto berean epaileak erabakiko ditu fidantzaren nolakotasuna eta munta (PKLren 529. art.). Ondoren, inputatu eta gainerako alderdiei jakinaraziko zaie autoa, nahi izanez gero, apelazioan errekurritu ahal izateko (PKLren 507. art.).

Azter ditzagun orain zertan dautzan kautelazko neurri hori erabakitzeko oinarriak: *fumus boni iuris* eta *periculum in mora*.

A) *Fumus boni iuris*

Behin-behineko askatasuna erabakitzeko delituzko izaera duen egitate baten edo gehiagoren existentziak egon behar du agerian. Eta horrekin batera, beharrezkoa izango da kautelazko neurria jasango duen inputatuaren kontra egitatearen erantzule kriminala dela ustezko zio nahikoak egotea. Ikus daitekeenez, ez dago alderik behin-behineko espetxeratzeari buruz esandakoarekin.

B) *Periculum in mora*

Kasu honetan kontuan hartzen diren arriskuak hauek dira: ikerketaren garapen arruntean eragina izateko arriskua eta prozesuan zehar inputatuak ihes egiteko arriskua.

Behin-behineko askatasuna arautzeko legeak kontuan hartzen du zigorraren larritasuna; kasu horretan 2 urtekoa baino gutxiagoko askatasun-gabetzea dakarren zigorra. Dena den, PKLren 503.1., 3. eta 503.2. artikuluen helburuak ere aintzat hartzen dira; izan ere, kasu batzuetan, hainbat elementu aztertu ondoren (lan-

egonkortasuna, familia-egoera, egoera ekonomikoa, dolurik eza, edo inputatuak ikerketan zehar emandako laguntza, besteak beste) behin-behineko espetxeratzea edo behin-behineko askatasuna erabaki daiteke. Horregatik, PKLren 529. artikulua 503. artikulura bidaltzen du esanez jurisdikzio-organoak behin-behineko askatasuna erabakiko duela *“inputatuaren behin-behineko espetxeratzea dekretatu ez denean”*.

Beraz, behin-behineko askatasuna erabakitzeko kontuan hartu behar dira PKLren 529. eta 503. artikulua. Baina horiekin batera, ezin da PKLren 502.2. artikulua ahaztu; horren arabera, behin-behineko espetxeratzea salbuespena izango da eta behin-behineko askatasuna, erregela orokorra. Zentzu horretan, behin-behineko espetxeratzearekin bilatzen diren helburuak neurri arinagoak ezarriz lortzerik badago, horiek erabakiko dira. Askatasun-eskubidean eragin gutxien duen neurria hartuko da. Beste hitz batzuetan esateko, proportzionaltasun-printzipioa kontuan hartuko da behin-behineko askatasunaren eta behin-behineko espetxeratzearen artean erabakitzeko orduan.

5.2.3. Betebeharrak

Behin-behineko askatasunak betekizun batzuk izan ditzake berekin: fidantza ematea, aldizkako agerpena, pasaportearen atxikipena, leku jakin batean bizitzeko galarazpena eta leku jakin batzuetara joateko galarazpena.

A) Fidantza

Behin-behineko askatasuna fidantzapekoa edo fidantza gabekoa izan daiteke. Fidantza eskatuz gero, inputatua agertzea bermatzen da epaileak deitua denean (PKLren 532. art.).

PKLren 530. artikulua fidantza arautzen duen arren, erantzukizun zibila bermatzeko fidantzaren arauak aplikatzen dira (PKLren 533. eta 591-596. art.).

Fidantza ematea erabakitzen duen autoak zehaztuko ditu haren nolakotasuna eta munta (PKLren 529. II. art.), baina proportzionaltasun-printzipioa errespetatuz, desproportzionatua izanez gero, behin-behineko askatasuna behin-behineko espexeratzeko bihur litekeelako. Proportzionaltasun-printzipioa mantentzeko, fidantzaren nolakotasun eta munta erabakitzeko momentuan, honako inguruabar hauek hartuko dira aintzat: delituaren izaera, prozesatuaren egoera soziala eta zigor-aurrekariak eta ihes egiteko haren interesan eragina izan dezaketen inguruabar oro (PKLren 531. art.).

Fidantza hipotekazkoa, pignoratzailea edo pertsonala izan daiteke, eta inputatuaren edo hirugarrenen ondasunen gainekoa (PKLren 533 art.); bestalde, posible da ere banku-erakundeek edo aseguru-etxeek emandako berme pertsonala.

Fidantza edozein momentuan alda daiteke oinarriak aldatzen badira (PKLren 539. I. art.).

Fidantzaren eraginkortasunari eta diru-bihurtzeari dagokionez, PKLren 534. artikulutik eta 538.era bitarteko artikuluek aurreikusten dute. Zentzu horretan, inputatua agertzen ez bada, diru bihurtuko da fidantza premiamendu-bidetik; diru-bihurtzeari dagokionez, fidantza motaren arabera izango da. Fidantza diru bihurtu ondoren, estatua haren jabe egingo da, kostuak kendu ondoren.

Bukatzeko, fidantza bertan behera utziko da, fidatzaileak eskatzen duenean, inputatua aldi berean aurkeztuz; inputatua espexera doanean; largespen libreko auto edo absoluzio-epai irmoa ematen

denean, edo kondena-epaia izanez gero, erruztatua kondena betetzeko aurkezten denean; eta auzia amaitzeke egonik, inputatua hiltzen denean (PKLren 541. art.).

B) Aldizkako agerpena, edo *apud acta* aurkezpena

Behin-behineko askatasunean izango den inputatuak, fidantza emanda edo fidantza gabe, *apud acta* eratuko du agertu beharra, autoak zehazturiko egunetan eta epaileak deitua izaten den beste aldiz (PKLren 530. art.). Normalean, auziaz arduratzen den edo bere helbideari dagokion epaitegiko edo auzitegiko Idazkaritzaren aurrean beharko du inputatuak, hil bakoitzaren 1. eta 15. egunetan. Agerpen horren helburua behin-behineko askatasunean dagoen inputatuaren berri maiztasunez izatea da.

D) Pasaportearen atxikipena

Aldizkako agerpenaren neurri osagarria da. PKLren 530. artikulua araberak, jurisdikzio-organoak behin-behineko askatasunean dagoen inputatuaren pasaportea era motibatuan atxikitzea erabaki dezake, aldizka agertzeko betebeharra bermatzeko.

E) Leku jakin batzuetan bizi izateko edo leku jakin batzuetara joateko galarazpena

Ikertutako egintza ZKren 57. artikuluan zehaztutako delituetariko bat izanez gero, (hau da, gizahilketa, abortu- eta lesio-delituak, askatasunaren aurkako delitua, tortura-delitua eta osotasun moralaren, sexu-askatasun eta ukigabetasunaren, bizitza pribatuaren eta norberaren irudirako eskubidearen aurkako delituak, egoitzaren bortxaezintasunaren, ohorearen eta ondarearen aurkako delituak, eta gizarte- eta ekonomia-ordenaren aurkakoak) epaileak edo

auzitegiak inputatuari ezarri ahal izango dio, era motibatuan, eta biktima babesteko helburuz behar-beharrezkoa denean leku jakin batean, auzune, herri, probintzia edo beste herri-entitate batean, edo Komunitate Erkidego batean bizitzeko galarazpena (PKLren 544. bis I. art.). Era berean, leku jakin batzuetara, auzune, herri, probintzia edo beste herri-entitate jakin batzuetara edo Komunitate Erkidegoetara joateko galarazpena ezarri ahal dio, edo pertsona jakin batzuegana hurbiltzea edo haiekin komunikatzea (PKLren 544. bis II. art.).

Neurriak hartzeko egotziaren egoera ekonomikoa, eta bere osasunaren errekerimenduak, familia-egoera eta lan-aktibitatea hartuko dira kontuan. Bereziki lan-aktibitatea jarraitzeko aukerari erreparatuko zaio, bai kautelazko neurria mantentzen den bitartean, bai amaitu ondoren (PKLren 544. bis III. art.).

Neurriak betetzen ez badira, PKLren 505. artikulua entzunaldia egin ondoren, PKLren 544. ter artikulua aurreikusitako agindua eman daiteke, behin-behineko espetxeratzea edo askatasun pertsonalaren mugatze handiagoa dakarren beste kautelazko neurri bat. Horretarako kontuan hartuko dira ez-betetzearen eragina, arrazoiak, larritasuna eta inguruabarrak, ez betetzeagatik ondoriozta daitezkeen erantzukizunak alde batera utzi gabe.

Uztailaren 31ko 27/2003 Legeak etxe-indarkeriaren biktimak babesteko agindua arautu eta PKLren 544. ter artikulua sartu zuen. Aipatutako manuak diotenaren arabera, Instrukzioko Epaileak etxe-indarkeriaren biktima babesteko agindua emango du, ZKren 173.2. artikuluan dioenez, pertsona baten bizitza, osotasun fisiko edo moral, sexu-askatasun, askatasun edo segurtasunaren aurkako delitu edo falta burutzearen seinale oinarrituak baditu eta manu hori babesteko neurriren bat hartzea eskatzen duen biktimarentzat arrisku-egoera

objektiboa dagoenean. Azpimarratzekoa da kasu horretan delituzko egitatea falta denean ere neurria hartzea posible dela.

Argitu beharra dago, ordea, neurri horiek kautelazko neurri moduan araututa egon arren, ez direla benetako kautelazko neurriak; kasu horretan, helburua biktima babestea da aurrerantzean egon litezkeen erasoen kontra. Kautelazko izaera baino, prebentziozko helburua, biktima babesteko helburua dutela esan liteke; hemen ez da emango den epaiaren betearazpena bermatzen, ezta inputatuaren agerpena ere prozesuan zehar.

5.2.4. Prozedura

Behin-behineko espetxeratzean gertatzen den moduan, fidantzapeko behin-behineko askatasuna erabakitzeke, behin-behineko askatasunaren baldintzak larriagotzeko edo espetxeratzearekin ordezkatzeko, Ministerio Fiskalak edo alderdi akusatzaileetariko batek eskatu beharko du (PKLren 539. art.). Beraz, PKLren 505. artikulua entzunaldia egin beharra dago.

Hala eta guztiz ere, epailearen ustez, PKLren 503. artikulua baldintzak betez gero, epaileak kautelazko neurria aldatu edo espetxeratzeke autoa emango du. Baina ondorengo 72 orduko epean entzunaldira deitu beharko die alderdiei.

5.3. PKLren 544. ter artikulua aurreikusitako neurriak

Etxeko indarkeria edo genero-indarkeriaren kasuetan PKLren 544. ter artikulua "babes-agindua" izeneko neurria hartzeko aukera aurreikusten du, eta horretarako prozedura erraza eta arina ezartzen du.

Instrukzioko epaileak etxeko indarkeriaren biktimak babesteko agindua eman dezake, bizitza, osotasun fisiko nahiz moral, askatasun sexual, askatasun edo segurtasunaren aurkako delitu edo faltaren seinale oinarrituak direnean, baldin eta biktima hori ZKren 173.2. artikulua zehaztutako pertsonak direnean. 544. ter artikulua zehaztutako neurrietako bat erabakitzeko, beharrezkoa da biktima arrisku-egoera objektibo batean egotea, bestela ez da agindurik emango.

Epaileak ofizioz edo biktimak nahiz ZKren 173.2. artikulua aipatutako pertsonaren batek nahiz Ministerio Fiskalak eskatuta emango du babes-agindua.

Babes-aginduaren bitartez har daitezkeen neurriak mota askotakoak dira:

- PKLren 503. artikulua zehaztutakoak, behin-behineko askatasunari buruzkoak, bereziki manu horren c) letraren 3. paragrafoaren, 1. atalean aipatzen den arriskua dagoenean.
- Era berean, PKLren 544. bis artikulua aurreikusitakoak, eta modu berezian, bizilekuaren debekua edo urruntze-aginduak.
- PKLren 544. ter 7. artikulua zehaztutako neurri zibilak.

6. KAPITULUA: KAUTELAZKO ONDARE-NEURRIAK

6.1. Kontzeptua. 6.2. Oinarriak. 6.3. Motak. 6.3.1. Ondasun eta gauzen okupazioa. 6.3.2. Fidantza. 6.3.3. Enbargoa. 6.3.4. Prebentziozko oharpena. 6.3.5 Behin-behineko pentsioa. 6.3.6 Ibilgailua berehala bahitzea. 6.4. Prozedura. 6.5. Froga edo delituaren gorputza bermatzeko beste neurri batzuk.

6.1. Kontzeptua

Ikasitako neurriekin batera (zigor-erantzukizuna bermatzera zuzenduta daudenak) PKLren 589. artikulutik eta 614.era bitarteko artikuluetan beste neurri batzuk aurreikusten dira: kautelazko ondare-neurriak. Ondare-neurriak edo neurri errealak deitzen zaie, ondasun higigarrien edo higiezinaren gainean hartzen direlako. Hala eta guztiz ere, ikusiko dugunez, era askotako izaera duten neurriak dira.

Epaiaren ondare- edukia bermatzera zuzenduta dauden neurriak dira; beste hitz batzuetan, zigor-prozesuan deklaratu daitezkeen diruzko erantzukizunak ziurtatzen dituzte (PKLren 589. art.). Baina diruzko erantzukizun horiek bi motatakoak izan daitezke: zibilak eta zigorrezkoak. Alde batetik, delituzko egitateak sortutako erantzukizun zibila bermatzen da, hau da, kondena-epaiak ezarritako betebeharrak zibilen eraginkortasuna ziurtatzen da: gauza itzultzea, kaltea konpontzea edo kalte-galaren ordainketa (ZKren 110. art.); izan ere, erantzukizun zibila prozesu hasieratik bermatu behar da. Bestetik, ondare-izaera duen zigor-erantzukizuna ere bermatzeko balio dute (adib., ZK-k isuna aurreikusten duenean); eta horrekin

batera, kautelazko ondare-neurrien bidez kostuak ordaintzea bermatzen da.

PKLren 764. artikulua dioenaren arabera, zigor-prozesuan PZLk xedatutako izaera zibileko kautelazko neurri guztiak aplikagarriak izango dira (kontuan hartu behar da aurreikuspen hori prozedura laburturako dela); izan ere, ezarri ahal izateko, haren betekizunak edo oinarriak aplikatu behar dira. Beraz, PKLk PZLrako igorpen orokor bat egiten du kautelazko ondare-neurrien kontuan. Horrela izanik, zigor-prozesuan kautelazko neurri zibil guztiak erabaki ahal izango dira, PKLan aurreikusita egonda edo ez egonda.

6.2. Oinarriak

Kautelazko neurriak duen helburua (zigor-erantzukizuna edo erantzukizun zibila bermatzea) aintzat harturik, oinarriak era askotakoak izango dira.

A) Fumus boni iuris

Kautelazko zigor-neurria izanez gero, inputatuak kriminalitate-seinaleak izan behar ditu. Kautelazko neurri zibila bada, ordea, ulertuko da oinarri hori beteta dagoela, baldin eta akzio zibilari uko egin ez bazaio edo prozesu zibilerako gorde ez bada.

Dena dela, kautelazko neurria hirugarren pertsona baten aurka hartzen bada, erantzukizun zibilaren seinaleak behar dira (PKLren 615. art.).

B) Periculum in mora

Zigor-kondena edo kondena zibila ez betetzearen arriskuan datza oinarri hau.

6.3. Motak

Kautelazko ondare-neurrien objektua kontuan harturik, hainbat mota daude. Kautelazko neurriaren helburua gauza itzultzeko edo emateko kondenak bermatzea izanez gero, bahiketa eta gauzak okupatzea arautzen dira, besteak beste (PKLren 619. eta 620 art.). Bestalde, bermatu nahi den kondena diruzko betebeharra bada, hauek dira garrantzitsuenak: fidantza eta enbargoa, prebentzio idatz-oharra, behin-behineko pentsioa eta ibilgailua berehala bahitzea.

6.3.1. Ondasun eta gauzen okupazioa

Erantzukizun zibilaz aritzean, ZKren 110. artikulua gauzaren "itzultzea" barne hartzen du; eta ZKren 111. artikulua esanetan, gauza bera itzuli beharko da baldin eta posible bada, hondatzeak eta kalteak ordainduta, eta itzultze hori egingo da gauza hirugarren baten eskuetan egonda ere eta legezko eran eskuratuta ere.

Baina egia esan, PKL ez da batere argia kontu horretan; izan ere, 619. artikulua baino ez da gai horretaz arduratzen. Artikulu horrek hirugarren batek dauzkan gauzen okupazioak eta ondorengo itzultzeak sortutako intzidenteei buruz bakarrik hitz egiten du. 620. artikulua, bere aldetik, delituaren objektuak eta instrumentuak bere jabeari itzultzeari buruz dihardu.

Aipatu dugunez, PKLren 619. artikulua okupazioaz eta ondorengo itzultzeaz hitz egiten du. Itzultzea aipatzean, egungo hirugarren jabeari egokitu ahal zaion kondena zibilari egiten dio erreferentzia. Okupazioari dagokionez, epaitegiak hartu behar duen kautelazko

neurria da, izango den itzultzeko kondenaren eraginkortasuna bermatzeko. Beraz, esan daiteke okupazioa ez dela kautelazko neurri konkretu bat, neurri generikoa, kontzeptu zabalagoa baizik. Okupazioak gauza itzultzeko neurri desberdinak barne hartzen ditu: administrazioa, enbargoa eta gordailua, besteak beste.

Kautelazko neurri hori erabaki ahal izateko, beharrezkoa izango da benetako eskubidearen itxura. Beraz, 619. artikulua aipatutako intzidenteak gauzaren tituludunak hasitakoak dira, ZKren 110.3. aurreikusitako kasuetako batean dagoela egiaztatzeko.

6.3.2. Fidantza

PKLren 589. artikulua eta hurrengo artikuluek delitutik ondorioztatutako diru-erantzukizunak ziurtatzea eta kostuen ordainketa bermatzea helburu duten hainbat neurri aurreikusten dituzte. Fidantza aztertzen hasiko gara.

Legeak enbargoa saihesteko alde aurreko aukera moduan arautzen du fidantza. Horregatik, auto beran kautelazko neurri biak erabakitzen dira (fidantza eta enbargoa) eta egoki deklaratu ahal liratekeen diruzko erantzukizunak ziurtatzeko fidantza nahikorik eman ezean, haiek ordaintzeko behar beste ondasun enbargatuko dira (PKLren 589. I. art.).

Baina ez dugu nahastu behar orain aztertzen ari garen fidantza behin-behineko askatasunaren erregimenean fidantza eman beharrezkin. Batak eta besteak helburu desberdinak dituzte, eta ez-ematearen ondorioak ere desberdinak dira: behin-behineko askatasunean ezarritako fidantza ematen ez bada, behin-behineko askatasuna espetxeratze bihurtzen da, baina diruzko erantzukizuna bermatzeko fidantza (orain aztertzen ari garena) eman ezean, enbargo bihurtzen da.

Era askotako fidantzak daude: pertsonala, pignoratzailea eta hipotekazkoa (PKLren 591-596. art. eta PZLren 764. art.). Eta obligaziodunak berak edo hirugarren batek eman dezake (zuzenean edo subsidiarioki).

Fidantzaren munta zehazteko kontuan hartuko dira delituzko egitateak ekar lezakeen isuna, delitutik ondorioztatutako erantzukizun zibila eta izan litezkeen kostuen zenbatekoa. Epaileak auto bidez erabakiko du fidantzaren nahikotasuna (PKLren 596. art.). Epaia irmo bihurtzen denean baino ezin izango da diru bihurtu, premiamenduaren bidetik.

Bukatu baino lehen bere garrantziagatik Erantzukizun Zibileko Nahitaezko Aseguruaren aipamen berezia egin beharra dago. Zirkulazioa dela kausa egindako delituen kasuetan, aseguratuak egindako egintzengatik zuzeneko erantzukizuna aseguru-etxeari dagokio; beraz, aseguru-etxeak edo, bere kasuan, Aseguruaren Konpentsazio Partzuergoak, nahitaezko aseguruaren mugara arte fidantza eman beharko du, epaileak horrela erabakitzen badu. Eskatzen den fidantzak muga goitik gaindituz gero, zuzeneko erantzuleak edo subsidiarioak fidantza edo abala eman beharko du diferentziagatik, bestela ondasunak enbargatuko zaizkio (PKLren 764.3. art.).

6.3.3. Enbargoa

Jakin dakigunez enbargoa bermatu nahi den erantzukizuna betetzeko ondasun nahikoak tratatzean datza.

Lehen adierazi denez, fidantzaren neurri ordezkatzaile moduan arautzen da. Beraz, diruzko erantzukizunak segurtatzeko fidantza nahikoa eman beharra ezartzen duen autoaren notifikazioaren

biharamunean, berau ematen ez bada, inputatuaren ondasunak enbargatuko dira (PKLren 589. art.). Hari errekerituko zaio diruzko erantzukizunaren zenbatekoa ordaintzeko ondasun nahikoak adierazteko (PKLren 597. art.).

6.3.4. Prebentziozko oharpena

Kautelazko neurri honen bitartez, zigor-akzioari metaturiko akzio zibilaren prebentziozko oharpena egiten da. Epaian prebentziozko oharpenaren baiespenak Jabetza Erregistroan inskribatutako eskubide errealei buruzko negozio juridikoen deuseztapena edo baliogabetasuna dakarrenean izango da egokia.

6.3.5. Behin-behineko pentsioa

Motor-ibilgailuen erabilpen eta zirkulaziotik ondorioztatutako egitateengatiko prozesuetarako aurreikusita dago. Neurri hori delituaren biktimari eta bere ardurapean daudenenei eman beharreko arretatik ondorioztaturiko erantzukizuna ordaintzera zuzentzen da (PKLren 765.1. art.).

Kasu horietan aseguru etxeak, edo dagokionean Aseguruen Konpentsazio Partzuergoak, behin-behineko pentsioa ordaindu beharko du aldez aurretik, nahitaezko aseguruaren mugara arte. Ordainketa aurretiaz egin beharko da, epaileak zehazten dituen egunetan.

Antza denez eta legea kontuan hartuta, ezin zaio zigor-erantzuleari pentsio hori eskatu. Arau berak aplikatzen dira egiteengatiko erantzukizun zibila zeinahi nahitaezko aseguruak bermatzen duenean.

6.3.6. Ibilgailua berehala bahitzea

Kautelazko neurri hau motor-ibilgailuen erabilpen eta zirkulaziotik ondorioztatutako egitateengatiko prozesuetarako aurreikusten da, diruzko erantzukizunak bermatzeko beharrezkoa denean, inputatuaren edo hirugarren erantzule zibilaren kaudimena egiaztatuta ez dagoen bitartean (PKLren 764.4. art.).

Ibilgailua berehala bahitzearekin batera, ibilgailuaren gidabaimena atxikitzea eta baita gidabaimena bahitzea ere erabaki daiteke (PKLren 464.4. II. eta III.).

6.4. Prozedura

Bi sistema daude: PKLrena prozedura arrunterako, eta PZLrena, eduki, oinarri eta ordeko kauzioari dagokienez, prozedura laburturako eta epaiketa arinetarako (ikus PKLren 764.2. art.). Dena dela, egile batzuen ustez, PZLren kautelazko neurrien prozedura aplikagarria litzateke ere prozedura arruntean.

Pertsona baten kontra kriminalitate-seinaleak agertu bezain pronto, epaileak fidantza ematea aginduko du diru-erantzukizunak bermatu ahal izateko (PKLren 589. art.). Fidantza ezartzen duen autoan bertan, erantzukizun horiek betetzeko behar besteko ondasunak zehaztuko dira. Inputatuak 24 orduko epean fidantza eman ezean, ondasunak enbargatuko zaizkio. Gutxienez diru-erantzukizunaren herena izan beharko du fidantzak.

Pieza bananduan izapidetuko da (PKLren 590. art.) eta auto bidez erabakiko da (PKLren 764.1. art.).

Fidantza pertsonal, pignoratzaille edo hipotekazkoa izan daiteke (PKLren 591. art.); zenbaitetan, bankuko abala onartzen da.

Prozesuan zehar diruzko erantzukizunak segurtatzeko eskatu zirenak baino gehiagokoak izan daitezkeela usteko zio nahikoak agertzen badira, fidantza edo enbargoa zabaltzea aginduko da (PKLren 611. art.), edo bere kasuan, gutxitzea (PKLren 612. art.).

Inputatuak zigor-erantzukizunaz gain, erantzukizun zibila ere izatekotan, epaileak ofizioz ezar dezake fidantza. Baina baliteke inputatuak erantzukizun zibilik ez izatea kasu horretan, hau da, erantzukizun zibila hirugarren pertsona batena izanez gero, alderdiak eskatuta bakarrik ezarri ahal izango da fidantza edo enbargoa. Egile batzuen ustez, bigarrenak bakarrik dira kautelazko neurriak, zeren eta alderdiek eskatzea baita kautelazko neurrien ezaugarria.

6.5. Froga edo delituaren gorputza bermatzeko beste neurri batzuk

Delituzko egitatearekin zerikusia izan dezaketen ondasun edo gauza guztiak ziurtatzeko neurriak dira, baina argitu behar da, batzuetan, neurri hauetako bat kautelazko bihur daitekeen arren (gauza itzultzeko kondena zibila bermatu nahi denean kasu), ez direla benetako kautelazko neurriak.

PKLren 334. artikulua araber, zeinahi gauza izan daiteke neurri horien objektua; epailearen ustez, delituzko egitatearekin zerikusia duela nahiko izango da neurria hartzeko. Euren funtzioa gauzak hasierako egoeran mantentzea da, epaitu behar duen jurisdikzio-organoak bere momentuan baloratu ahal izateko. Hau da, ahozko fasean, jurisdikzio-organoak aintzat hartu beharko dituen ondasunak eta gauzak kontserbatzeko eta ziurtatzeko neurriak dira. Beste hitz batzuetan, ahozko epaiketan baloratuko diren frogaiturriak ziurtatzeko neurriak dira.

Horregatik neurri horien erregimen juridikoa kautelazko neurrietatik desberdintzen da. Legeak, helburua eta funtzioa kontuan hartuta, honako neurri hauek arautzen ditu:

- Gauzak eta ondasunak atzematea (PKLren 334. eta 574.). Delituarekin zerikusia izan dezakeen guztia hartzean datza. Gauzak hartu ondoren gordailatu egingo dira. Batzuetan, gauzak atzemateko aurreko neurriak beharrezkoak izango dira; haien artean, leku itxian sartzea eta miaketa daude (PKLren 567. art.).
- Gordailua (PKLren 338. art.). Instrukzioko epaileak frogatzeko beharrezkoak diren gauzak baino ez dira gordailatuko; atzemandako gainerako gauzak jabeei bueltatuko zaizkie. Gordailua epaitegian egin daiteke edo, gauzen izaera kontuan hartuta, erakunde bereziren batean.